

**Herririk Herri** |21|

Eskoletako jangeletako greba dela-eta konponbideak eskatu dituzte gurasoek

**Kirola** |22|

Lehentasunezko mailarako igoera lortu du Zaldibarko Zaldia futbol taldeak



**Amalurra** |23|

Udal pabiloian gasolindegia elektrikoa egin gura du Abadiño Udalak

## Bizkaiko Bertso Eskolen Eguna ospatuko dute bihar lurretan

- > Lehenengoz antolatu dute topaketa hau, Bizkaiko bertso eskolen arteko hartu-emanaren sendotzeko
- > Durangaldetik Abadiño, Berriz, Durango eta lurretako eskolak batuko dira plazan

15



Asier Arroita

### Patinete gaineko malabaristak Landako Gunean

Durango • Txotx! Mini Ramp txapelketak Euskal Herriko zein nazioarteko skatelari onak batuko ditu bihar, beste behin, Durangoko Landako Gunean. 12:00etan hasi eta iluntzera arte, ikuskizuna ziurtaturik dago. Musikarik ere ez da faltako; erakustaldien bitartean, zuzeneko musikagaz girotuko du skatelarien topaketa Positiva taldeak.

21

## HAUTESKUNDEAK 2011



Hauteskunde eguna da domeka; alderdiek eta alkategaiek gaur gauerdira arteko tarteak dute botoa nori eman zailtasun dagoena konbentzitzeko. Anbotok jarraipen berezia egingo du webgunean; herrietan bozken kontaketa amaitu bezain laster jakinaraziko ditugu emaitza guztiak [www.anboto.org-en](http://www.anboto.org-en).

16-17

• **Durangaldea**

Bizkaibus Arrasaterainoko zerbitzua ematen hasi da

2

• **Berriz**

16 urtetik gorakoentzako ikasgela zabaldu du udalak

3

• **Durango**

Fundifis zegoen lursailen plan bat eskatu dute langile ohiek

6

• **Otxandio**

Gaztetxearen urteurrenoko abestia grabatu dute

7

**EROSI EZAZU ZURE ETXEA DURANGON HILEAN 590€ ORDAINDUTA**

**Eraikuntzaren 1. fasea hasita**

**FAUSTEGOIANAN (DURANGO)**

**23 ETXEBIZITZA GUNE ZABALEKIN**

1 LOG 62 M <sup>2</sup>	2 LOG 90 M <sup>2</sup>	3 LOG 109 M <sup>2</sup>
----------------------------	----------------------------	-----------------------------

Domotika • Interneterako doako konexioa  
Horma-armairuak • Ganbara  
**GARAJEA AUKERAN**

**GARAJEAK SALGAI**

**bbk** -k finantziatua

**Joxemiel Barandiaran, 8 A, 1ºC - DURANGO**  
Tel.: 94 681 44 95 • Mug.: 650 397 007  
e-mail: argolabe@hotmail.com

**ERAIKUNTZA ETA GESTIOA**

ARGOLABE, S.A.

# HERRIRIK HERRI >

**DURANGALDEA**

## Jangeletako grebak kalera atera ditu gurasoak

Asteon kontzentrazioak egin dituzte eskoletan, guraso elkarteek deituta

**G**rebak aurrera jarraitzen du hirugarren astez ikastetxeetako jantokietan. Durangaldean, Elorrio, Iurreta eta Zaldibarren greba erabatekoa da, sindikatuetakoa iturriek azaldu digutenez. Durangoko Zabalarran erabatekoa da, baina, Landakon ez da %50era ailegatzen. Abadiñon ere antzeko zerbait gertatzen da: Zelaietan %100eko jarraipena du, eta Traña-Matienan %50 ingurukoa. Berrizen ez du eraginik izan. ELA, LAB eta UGT sindikatuak dira protesta deitu dutenak.

Hitzarmen kolektiboa negoziatzea gura dute beharginek. Bes-

teak beste, lanaldiak ez diela bete-beharrak txukun egiteko modurik ematen salatu dute, eta geroago eta haur gehiagoren ardura daukatela. Patronalagaz ez da akor-


**Patronalagaz ez da akordiorik izan; Jaurlaritzari inplikatzeko eskatu diote beharginek**

**Bi aldeei "akordio definitiboa lortzeko esfortzua egitea" eskatu diete gurasoek**

diorik izan. Eusko Jaurlaritzari ere gaiari heltzeko eskatu diote.

### Gatazka amaigabea

Greba honek hainbat haur eta familiarentzat ondorio zuzenak ekarri ditu. Gurasoen elkarteek deituta, kontzentrazioak egin dituzte eskoletan. Enpresa eta sindikatuak "akordio definitiboa lortzeko esfortzua egitea" eskatu diete; Jaurlaritzari berriz "lana eta familia bateratzeko dugun eskubidea eta haurrek jatordu eta esko-laordu egonkorra izateko duten eskubidea bermatzeko" neurriak hartu ditzala. ■ M.Onaindia



Zaldibarren martitzenean egin zuten elkarretaratzea.

## Erakundeekin izandako batzarrak berbegai euskarazko hedabideek

Diru-laguntzei eta publizitate instituzionalari buruz jardun dute, esaterako

Otsailan abiatu zuten kanpainari segida emanez, euskarazko hedabide ez publikoen ordezkariak gerraldia egin zuten martitzenean Donostiako Koldo Mitxelena. Azken hileetan alderdi politikoen, Eusko Jaurlaritzagaz, Nafarroako Gobernuagaz eta EAeko hiru Foru Aldundiekin batu dira, eta batzar horien berri eman zuten.

Batzarretan hiru gai mahai-gaineratu dituzte: sektorearen egoera erakunde publikoen elkarlanean aztertzeko beharra, diru-laguntzak %25 handitzeko eskaria eta publizitate instituzionalaren %25 euskarazko hedabide ez publikoetara bideratzea.

EAeko erakunde publikoak prest azaldu dira sektoreagaz batera bildu eta egoera aztertzeko.

Diru-laguntzak handitzearen inguruan, berriz, "kezka" adierazi dute, erakunde guztietan horretarako zailtasunak iragarri baituzte. Egoerarekiko kezka zabalte-

ko asmoz, euskarazko hedabide ez publikoek komunikazio kanpaina ere aurkeztu zuten martitzenean, hedabideetako euskarri guztietara zabalduko dena. ■ J.D.



Topaguneko eta Berriako ordezkariak. A.Monedero

## Bizkaibus Arrasaterainoko zerbitzua ematen hasi da

Lanegunetan Elorrio-Bilbo lineako sei autobusen ibilbidea luzatu dute Debagoienara heltzeko

Arrasaten ikasi edo behar egiten duten herritarrek autobus zerbitzu berria daukate. Hainbat eskariren ondoren, astelehenean hasi du Arrasaterainoko zerbitzua Bizkaibusek, eta egunetan sei joan-etorri egiten ditu Elorrio-Bilbo linea Arrasatera luzatuta.

Bizkaibusek herriak hainbat gunetan banatuta dauzka bidaien prezioak finkatzeko. Elorrio eta Atxondoko gunean sartu da Arrasate, bosgarrenean, eta, beraz, bertako tarifak Elorrio eta Atxondori dagozkionak dira. ■ A.U.

### ORDUTEGIA

#### Bilbotik

06:00, 07:00, 08:00, 12:00, 16:00, 18:00 (Durangora laurden gutxitan heltzen dira)

#### Arrasatetik

07:45, 08:45, 09:45, 13:45, 17:45, 19:45 (Elorriotik eta hamarretan irtengo dute, orain arteko lineek legez)

### Elorrio eta Atxondoko tarifak dauzka Arrasatek; Bizkaibusek bosgarren gunean sartu da

Lanegunetan egongo da zerbitzua martxan. Autobusak Bilborako lineak egiten dituen geldialdiak egiten ditu; Iurretan, Durangon, Abadiñon, Atxondon eta Elorrian. Arrasaten Musakola eta Garibai geltokietan geratzen da.

**momotxo**  
t a b e r n a  
plateruen plaza, 12 • 48200 durango  
tel.: 94 681 10 06

katerin ardoak  
iñaki uribe  
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427  
**saltsan**  
saltsan.com

**Arrike**  
Liburudenda  
Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO  
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

**A CENTRAL FORESTAL**

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura  
Etxebarrieta auzoa 48200 IURRETA  
Tf.: 946 205 187  
Faxa: 946 205 194





## Tabakoari buruzko tailerrak LHko 6. mailako ikasleentzat

Tabakoak gorputzean zer eragin duen ikusteko esperimenduak egin dituzte datorren astean eskualdeko hainbat ikastetxetan. Drogomenpekotasunen prebentzioan aditua den pertsona batek tailerrak emango dizkie Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleei, tabakoa eta bere eraginaren gainean hausnarketa eragiteko.

Maitzaren 31 Tabakorik Bako Nazioarteko Eguna dela-eta, Amankomunazgoko Drogomenpekotasunen Prebentzio Sailak antolatu ditu tailerrak.

Durango, Elorrio, Iurreta, Abadiño, Otxandio eta Mallabiko hamar ikastetxek parte hartuko dute Amankomunazgoak antolatutako tailer bereziotan. ■ A.U.

**Esperimentuak eginez, tabakoak gorputzean dituen eraginak ikusiko dituzte**

**Tabakorik Gabeko Nazioarteko Eguna dela-eta antolatu ditu tailerrak Amankomunazgoak**

## Gurutze Gorriaren lehen laguntzarako ikastaroa

Biktimen hasierako ebaluazioa zelan egin, pertsona bat konortek barik dagoenean zelan lagundu, lipotimia kasuak, bihotzekoa, trauma anitzeko biktimak... Durangaldeko Gurutze Gorriak kasu horietan lehen laguntza ematen ikasteko ikastaroa antolatu du.

Durango izango da ikastaroa, ekainaren 20tik uztailaren 14ra, astelehenetik eguenera 18:30etik 21:30era.

**Boluntario izateko balio du ikastaroak; ekainaren 20tik uztailaren 14ra emango dute**

Gurutze Gorrikoek azaldu dutenez, edonork egiteko moduko ikastaroa da, eta kursoaren amaieran gaitasun frogagandituta diploma bat emango zaie parte-hartzaileei. Ikastaroak boluntario izateko balio du, eta, gainera, ur sorospeneko ikastaroa egiteko baldintzetako bat da.

Izena eman edo informazio gehiago gura duenak [formacion-durango@cruzroja.es](mailto:formacion-durango@cruzroja.es) helbidera idatzi dezake, edo 600 989 551 telefonora deitu. ■ A.U.

**BERRIZ**

# 16 urtetik gorakoentzako ikasgela zabaldu du udalak

Lehenago KZgunea zen lokalean egokitu dute zerbitzu berria



Ikasleentzako gune lasaia sortu gura izan dute; jubilatuen egoitzan eman behar da izena.

Zengotitabengoa kalean egokitu berri dute ikasketa gela berria, Hirugarren Adinekoen egoitzaren ondoan. Hain zuzen ere, egoitza horretatik sartu beharko dute zerbitzua erabiltzeko interesa daukatenek. Lehenago KZgunea hartu zuen lokala da ikasketa gela jasoko duena.

16 urtetik gorakoentzako gunea da, udaletik azaldu duteenez. Eguerdiko 14:00etatik ilun-

tzeko 20:00etara egongo da zabalik, egunero; abuztuaren itxita mantenduko dute. Ikasteko lekua da bakarrik, eta, beraz, ezingo dira

**Eguerdiko 14:00etatik iluntzeko 20:00etara egongo da zabalik ikasgela, astelehenetik domekara**

taldeko lanak eta antzekoak bertan burutu. Gainera, "giro egokia" sortzeko arauak ezarri dituzte: isiltasuna zaintzea, mugikorrak itzaltzea, materiala errespetatzea eta ordenagailuari soinua kentzea, kasurako. Erretzea, jatea eta edatea debekatuta daude, eta ezingo da tokirik erreserbatu.

Sartzea libre da, baina erabiltzaileak izena eman beharko du nagusien egoitzan. ■ M. Onaindia

KIROL GUNE BERRIAK

TRENAREN LURPERAKETA

GEHIAGO  
Durango berria

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

KONPROMISOA

SAN FAUSTO-ARAMOTZ  
ZENTRO ZIBIKOAK



**Durangori onena emateko talderik onena**

BOZKATU





m22  
**bozkatu**

bilduduranga**ldea** bildueuskal**herria** bildu



**bilduiurreta**



**bilduabadiño**



**bildudurango**







ABADIÑO

# Domekara arte, jai giro beroa Zelaietako San Trokazetan

Kontzertuak eta erromeriak, gaur eta bihar, herritar eta bisitarien gozagai



Joan zen egunean jaiari hasiera eman zieteneko dantza emanaldia. Rakel Calvo

**A**ntzerki eta musika eskaintza interesgarriak betetzen du Zelaietako San Trokaz jaietako gaur iluntzeko egitaraua; besteak beste, Markeliñe antzerki talde zornotzarraren *Carbon Club* lanaren emanaldia izango da, 21:30ean, Ferialeku plazan. Ondoren, Sermond's elorriarren eta Kruders abadiñarren kontzertuak izango dira txosnagunean.

Maiatzaren 22an, 20:00etan, Gerbasen agurragaz jaiari amaiera eman orduko, hiru egun eta gaueko jai egitaraua dago oraindik Zelaieta auzoan bisitari eta herritarren gozagari.

**Talde Batuak dantza taldeak 'Euskal ezkontza' antzeztuko du bihar, 12:00etan**

Maiatzaren 21ean, esaterako, Talde Batuak dantza taldeak antolatutako *Euskal ezkontza* antzeztuko du Ferialeku plazan, eta kalejira 12:00etan. Ondoren izango den herri-bazkariaren ostean, trikitalarien, abesbatzaren, txistularien eta Luhartz, Gose eta Esne Beltza taldeen doinuak izango dira Zelaietako San Trokaz jaietan. ■ I. Esteban

## "Benetakoaz gozatzeko" deia egin du Eusko Labelek

Eusko Label produktuak ezagutzera emateko eta horien kontsumoak dituen onurak azpimarratzeko kanpaina aurkeztu dute Amaia Luquin Kalitatea Fundazioko zuzendari nagusiak eta Jose Luis Anda Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak.

**Globoan ibilaldiak eta landa-etxe batean egonaldia zotz egingo ditu Kalitatea Fundazioak**

"Eusko Label kalitate-bereizgarriaz ziurtatuta datozen eta Euskadiko kalitatea eta jatorria duten produktuen kontsumoaren garrantzia" ezagutarazi gura diete kontsumitzaileei.

Abiatu berri duten kanpainarako 'Eusko Label produktuak, benetakoaz gozatu' goiburua aukeratu dute, eta globoan egiteko 36 ibilaldi eta landa-etxe batean asteburua igarotzeko 80 egonaldi zotz egingo dituzte Euskal Okela, Baserriko Oilaskoa, Gernikako Piperra, eta Eusko Labela duten tomateak eta letxugak erosteagatik. ■ A.B.

## Udalekuetarako izen-ematea, maiatzaren 24ra bitartean

Maiatzaren 24 bitartean, Traña-Matienako Errota kultur etxean edo Zelaietako Udal Mediatekan eman daiteke udalak uztailearen lehenengo hamabostaldirako antolatu dituen udalekuetan parte hartzeko izena.

Zelaieta eta Traña-Matienako herri eskoletan batuko dira uztailearen 1etik 15era arteko udalekuekin, eta talde bi osatuko dituzte: 1999 eta 2004 bitartean jaiotakoekin bat, eta 2005 eta 2007 bitartean jaiotakoekin beste talde bat osatuko dute.

**Zazpi eta hamabi urte artekoak talde batean, eta lau eta zazpikoak bestean**

**Errota kultur etxean eta Mediatekan eman daiteke udalekuetarako izena**

Ume bakoitzeko 60 eurokoa izango da matrikularen prezioa; neba-arreba bikizena eman ez gero aldiz, 90 euro ordaindu beharko dituzte. ■ I.E.

**GEHIAGO**

**ENPLEGUA**

**KONFIDANTZA**

**ARDURAZ KUDEATZEA**

**BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK MATIENAN**

**EGONTZA**

Abadiñori onena emateko talderik onena

**bozkatu**



DURANGO

# Fundifesen lursailerako plan bat eskatu dute langile ohiek

Gaia datorren legegintzaldiko "lehentasunen artean" egotea exijitu dute



Eguaztenean elkarretaratzea egin dute Durangoko udaletxe aurrean.

Fundifesez hartzen zuen lursailerentzat plangintza bat eskatu dute asteon bertako langile ohiek; "ez da udalaren erantzukizuna, baina bere esku dago pausoak ematea". Arinago etxebizitzaren egitasmo bat tartean bazeo ere, orain ez dute proposamenik aipatu: "Udalak erabaki beharko du zelako plangintza urbanistikoa egin, baina egin dezala zer-bait". Hirigintza batzorde berria eratzeraoan gaiari "lehentasuna ematea" eskatu dute sindikatuek.

ELAko Unai Martinezen berbetan, "Fundifesez arazoaren atzean kalte-ordain barik geratutako 215 langile daude". Lur horiek aprobetxatzea "herritarrentzako onuragarria" izango dela nabarmendu du Martinezek.

"Jaustear" dagoela eta, ingurugiro aldetik eta segurtasun aldetik "kezagarria" dela dio ELAko kideak: "Inoiz jendea eraikin barrura sartu da lo egitera, eta egunen batean ezbehar bat gertatuko da eraikina jausten bada".

## Behargin ohien egoera

2008ko maiatzean itxi zuten Fundifesez. USO sindikatuko Jesus Mari Vicentek azaldu duenez, langile ohi gehienak 50 eta 60 urte bitartekoak dira: "langabezia saria amaitu zaie, eta batzuek aurrejubilazioa eskuratu dute; beste askok ez dute adinik hori lortzeko. Adin horregaz eta krisi garaian gaitza da lana topatzea".

2008an kalteordainak eman beharrean ugazabek eraikina utzi zuten langileen esku. ■ A. Ugalde

# Geu Be elkarteak inkesta helarazi die politikariei

Urritasunaz eta bere gaineko politikez galdetu die

"Etxebizitzaz, enpleguaz, ekonomiaz... berba egiten dute hauteskunde kanpainetan, baina, normalean, urritasunari buruz oso gutxi". Hori dela eta, Geu Be premia bereziak dituzten gazteen familien elkarteak galdetegia helarazi die

eskualdeko politikariei. Eurentzako ezgaitasuna zer den eta Durangaldean alor horretan zer hobetu daitekeen galdetu diete.

Jose Alfaro Geu Beko koordinatzaileak azaldu du erantzuntan "denetarik" egon dela: "Batzuk

nahiko orokorrak izan dira, eta beste batzuk zehatzagoak; askogaz batzartu egin gara eta igarri egin da ezagutzen gaituztela".

Alfarok nabarmendu duenez, "gai baten gainean berba egiten ez bada, ez da existitzen". Zortzi urte dira Geu Be sortu zenetik, eta jendeak geroago eta jarrera hobea duela pentsatzen du: "elkarteko gazteak lehenago etxean geratzen ziren, baina orain kalean mugitzen dira gehiago, eta jendeak ikusten du beste gazteen moduan bizi daitezkeela". ■ A. U.

# Parte-hartzeari buruz gogoeta egiteko aukera eguen honetan

Parte Hartuz masterreko kideek norbanakoen iritziaz galdetuko dute Andra Mariko elizpean

Andra Mariko elizpean sofa eroso bat ipini eta herritarrak parte hartzeari buruz berba egitera gonbidatuko dituzte, datorren eguenean, Parte Hartuz masterreko kideek. 17:30etik 20:00etara izango da ekimena.

## 'Lau urtean behingo botora mugatzen al da zure parte-hartzea?' leloa du ekimenak

Hauteskundeak izan eta hurrengo astean *Lau urtetan behingo botora mugatzen al da zure parte-hartzea?* galdera planteatuko diete durangarrei Parte Hartuzeko kideek. EHUan ematen

den masterra da Parte Hartuz, eta partaidetza eta garapen komunitarioa lantzen dituzte. Durangon elkarteekin hasi ziren parte hartzeari buruzko diagnostikoa egiten, eta orain norbanakoengana gerturatu gura dute.

Andra Marian, sofaz gainera, inkesta bete eta iritzia emateko buzoia ipiniko dutela azaldu du Joseba Landa Parte Hartuzeko kideak: "helburua gizarte ez antolatua iritzia jakitea da".

Herritarrek emandako iritzien ondorioak kaleratu eta emaitzak elkarteekin alderatu gura dituztela azaldu du Landak. Horretarako, ekainean jardunaldiak antolatuko asmoa dute. ■ A. U.

ATXONDO

# Bi urterako esleitu dute igerilekuetako taberna

Urtero-urtero atera izan du udalak igerilekuetako taberna enkantera. Aurten ere horrela egin dute, baina berrikuntza batez; urte birako esleitu dute taberna beste urte bi luzatzeko aukeragaz.

Atxondoko alkate David Cobosek azaldu duenez, gutxienez uda birako esleipena egitea pentsatu dute, horrela "konponketak edo inbertsioak egin gura badituzte, irabaziak izateko aukera handiagoa" izango dutelako.

Atzo zen azkeneko eguna taberna kudeatzaile gura izan dutenek euren eskaintza emateko. Lau eskaintza egon dira, eta 300 euro izan da minimoa. Azkenean 800 euro eskaini dituenak kudeatuko du taberna, gutxienez datozen bi urteetan.

Igerilekuak ekainaren 11n edo 18an zabaltzea aurrekusi du udalak. ■ A. U.

MAÑARIA

# Bordeleko azokara joateko izena emateko aukera udalean

Abeltzaintza eta nekazaritzarako, etxetresna eta makineriako hainbat produkturen azoka da Bordelen burutzen dutena, eta dozena bat urte dira Mañariko Udalak bertara joateko irteera antolatzen duena. Maiatzaren 28rako da aurtengo eskaintza, eta, 946818998 telefonoan, datorren astean zehar ere eman daiteke oraindik izena.

## Eskaintza zabal eta anitza daukan azoka da Bordelen bisitatuko dutena

Goizeko zazpitan Mañaritik aterata joango dira Frantziako hirira. Autobusa betetzeko lekua dago oraindik, eta eskualde osoko jendea gonbidatu dute izena ematera. ■ I. E.



Pilar Ríos  
Durangoko Alkategaia

## Durango garatzen

**"Durangok gobernu-aldaketa behar du"**  
**Eta honakoak dira gure konpromisoak:**

- Kudeaketa hobetu
- Enplegu-politika aktiboak
- Babes ofizialeko etxebizitzak eraiki
- Gure nagusiei arreta-zerbitzu osoa eman
- Mugikortasuna hobetu
- Andragunea handitu
- Auzoen birgaikuntza

Zure herriak irabaz dezan







ELORRIO

# Herritarren parte-hartzeagaz osotu dute 3. Berdintasun Plana

Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren diagnostikoan oinarritu dira

**P**arekidetasunean aurrera egiteko lan tresna berria onartu berri dute Elorrioren; III. Berdintasun Plana. Plan berria osatzeko herrian gaur egun gizon eta emakumeen arteko berdintasunak bizi duen egoera aztertu dute. Gainera, plana garatzeko prozesuan, jarraipena egiteko talde bat sortu dute, Lilika eta Elorri Lore emakume elkarteak kideekin eta norbanakoekin.

Oreka Sarea enpresa ardura-tu da gaur egungo errealitatearen

diagnosia egiteaz, eta, tartean, hainbat esparrutako herritarrek eta udal langileek parte hartu dute. Horrez gainera, berrikuntzetako bat jarduerak garatzeko kronograma egin izana da. Jarduera

**Datorren legegintzaldi osorako plangintza egin dute, kronograma eta guzti**

bakoitzak, lehenengoz, bere arduraduna izango du.

Orain arteko planak bi urterako baziren, berri hau lau urterako egitasmoa da; Berdintasunerako Zerbitzua eta udaleko gainerako sailen lanerako gida-lerroa izango dela azaldu du Itziar Agirretxe berdintasun arloko zinegotziak. Datorren legegintzaldian tresna "kontzienteki" erabiltzeko eskatu du: "Tresnak bere horretan ez du funtzionatuko; konpromisoa eta lana behar dira". ■ A. Ugalde

OTXANDIO

# Gaztetxearen urteurreneko abestia grabatu dute gazteek

Gaztetxeako 10. urteurrenaren baitako egitarauak ere aurrera darrai



Hainbat gaztek hartu dute parte abestiaren grabaketan.

Gaztetxearen 10. urtemuga dela-eta, martxoan egitarau luzea aurkeztu zuten herriko gazteek, ekin-tza eta deialdiz josita. Joan zen aste-buruan ere, hiru ikastaro prestatu zituzten Gazte Asanbladakoek; eskalada praktikatu zuten bolalekuan, buruhandien tailerra izan zuten eta Photoshop ikastaroan ordenagailu bidezko diseinuan murgildu ziren.

Ikastaroetaz gainera, ospakizunaren harira sortutako abestia-

**Letra Miren Amurizak idatzi du eta musika jartzeaz Kilauea taldea arduratu da**

ren grabaketan ibili dira burubelari azkenaldian. "Lan luzea eta nekagarria izan arren, emaitzagaz oso gustura geratu gara", diote gazteek. Eskerrak eman gura izan dizkiete kantaren sorkuntzan

"bidelagun" izan dituztenei: letra Miren Amurizak idatzi du eta musika Kilauea taldearen esku egon da. Grabaketan, alde teknikoan, Xaguren laguntza izan dute.

**Bi aste festarako** Ekainaren 4an ospatuko dute egun handia, urteurren jaiagaz, eta motorrak ondo berotuta ailegatu-ko dira, segurutik. Jaialdi horretarako egun osoko egitaraua antolatuko dute gazteek. ■ M.O.

MALLABIA

# Deneriko produktuekin osatutako azoka, etzi

Ortuariak, artisautza, ezta, gazta... denerik aurkitu ahal izango da, etzi, frontoiko azokan

Hamabostaldiko ekitaldien barruan, 14 postugaz osatutako azoka antolatuko dute domekan, 10:30etik 14:00etara, Mallabia I pilotalekuan. Artisautzaren ingu-

**14 postuetatik sei Mallabiko ekoizleenak dira; pintura erakusketa ere atonduko dute**

ruko sei postu, ortuarien eta gozogintzaren ingurukobost eta xaboi, etzi eta beiraren inguruko bana egongo dira. Ortuarien gaineko stand guztiak mallabitar ekoizleenak dira; baita gozogintzakoa eta artisautetako bat ere.

Gainerako postuak, besteak beste, Zeanuri, Gasteiz edo Ugao-ko ekoizleek beteko dituzte.

Pilotalekuko eremu batean Fernando Garcia eibartarraren pintura erakusketa ere atonduko dute. Erakusketa gaur ere bisitatu daiteke, kultur etxean, 16:00etatik 20:00etara.

**Dantza erakustaldia**

Bestalde, 12:00etan, Gazte Alai taldeak dantza erakustaldia eskainiko du plazan. Ondoren, Txondor herri-kirol taldeak egur handi bat moztu behar zuen plazan, baina azken orduko arazo bat dela-eta, ekimen hori bertan behera utzi behar izan dute. ■ J.D.

IZURTZA

# "Eskubide urraketa" salatzen duen mozioa udalean

Legegintzaldiko azkeneko ezohiko udal bilkuraren gai ordenan sartu du azken lau urteetan Ezker Abertzaleko zinegotzi taldeak *Eskubide urraketa* izenburuko mozioa. Alderdien Legeagaz, "Ezker Abertzaleko siglaren baten ordezkari, hautagai, interbentore edo apoderatu izatea edozein instituziotarako hautagai izateko eskubidea galtzeko nahikoa" izan dela eta egoera horretan 40 izurtzar daudela dio idatziak.

"Eskubide urraketa" horren salaketa egiteaz gainera, konpromisoak eskatzen dizkiete udalbatzarrari mozioan: besteak beste, "eskubideak urratuta dauzkaten herritarren parte-hartze municipalak ziurtatzeko bideak" ipintzea, edo "eskubideak urratuta dituzten susmoa duten herritarrek hala eskatuz gero, euren egoeraren berri jakiteko tramiteak burutzen laguntzea" aurrerantzean udalak. ■ I.E.

ZALDIBAR

# Landareak eta belarrak ezagutzeko ikastaroa

Helmuga emakume elkartearen eta EHNE sindikatuaren elkarlanetik abiatuta, landare eta belarren gaineko ezagutza handiagotzeko aukera ematen duen ikastaroa martxan dago Zaldibarren. Maiatzaren 4an izan zen lehenengo saioa, eta oraindik lau geratzen dira. Hilaren 25ean egingo dute hurrengoa, eta ekainaren 1ean, 8an eta 15ean izango du jarraipena.

**17:30etik 20:00etara, Helmutegaren egoitzan emango dira eskolak**

Arratsaldeko 17:30etik 20:00etara da ikastaroko ordutegia, eta Helmuga elkartearen egoitzan, Elizondo kalean, geratzen da. Elkarteko bazkideek 10 eurotan izan dute izen-ematea, eta ez direnek 13 eurotan. Par-taide kopuru mugatua du. ■ M.O.



# Gure konpromisoa Iurreta

- Etxebizitza, ahal den preziorik onenean
- Taxi-auzunaren aldeko apustua
- N-634 hiri zeharkalea bihurtzeko pausuak ematea
- EBPN (Euskara berribizitzeko plan nagusia)
- Eskualdeko turismo-sektorea garatu
- Lehiakortasun poloaren finkapena bermatu
- Eskualdeko nekazar-sektorea indartzen duten ekimen bideragarriak bultzatu
- Gure baserriarren produktuekin asteko merkaturia eta asteko udal merkaturia sortu
- Landa eremuetan azpiegiturak hobetu eta gure landa-nukleoen konfigurazioa defendatu
- Jubilatuaren Egokitzan etengabeko hobekuntzak bultzatu
- Indarkeria matxista gaitzesteko gizarte kontzientziazioaren aldeko lana
- Parte hartzeko mekanismoak sustatu
- Udal kudeaketan erabat gardenak eta zorrotzak izaten jarraitu

**ONENA EMATEKO GARAIA**



# BAUTISTAN BI LAGUNENTZAKO EHUNKA ITSAS BIDAIA OPARITZEN JARRAITZEN DUGU OPARIA ZUZENEAN

## 1.900 EUROKO GUTXIENeko EROSKETAGATIK

Bautistan inoiz ez genizuke ezer oparituko lehenago geuk probatu barik. Zure lekuan geu joan gara sasoiko lehenengo itsas bidaiara: BARTZELONA-TOULON-SARDINIA-BARTZELONA eta ziurtatu egiten dizugu esperientzia **ZORAGARRIA** izan dela **ZATOK ETA FROGATU EGIZU**

Jon Ugarte  
Bautista altzariak eta dekorazioa



**BAUTISTA**  
MUEBLES Y DECORACIÓN  
LAUDIO - ABADIÑO

IBERO cruceros-en laguntzarekin:



Eguzki sartzea. Sardiniatik irteten.  
2011ko apirilaren 2a. 20:00.



Popako hartzaindegia. Bartzelonatik irteten.  
2011ko martxoaren 31. 18:00.

Zurekin ospatu gura dugu gura 40. urteurrena eta harritu egin gura zaitugu.

**EHUNKA ITSAS BIDAIA OPARI, BI LAGUNENTZAKO  
BETIDANIK BEREIZTU IZAN GAITUEN ARGITASUNAREKIN.**

[www.bautistamuebles.com](http://www.bautistamuebles.com)

**94 672 77 00**

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3. irteera) | Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroski ondoan)

Itsas bidaia kopuru jakin bat amaitu artekok eskaintza. Instalakuntza libreko elektrotresnen erosketak ez da baliagarria eskaintza honetarako





## Durangaldean labor

### Sormen topaketak antolatu dituzte ekainerako, Urduñan

Ekainaren 28an eta 29an Urduñako aterpetxean hainbat eskualdetako gazteak bilduko dituen Izarren Distira sormen topaketak antolatu dituzte, Durangaldeko Merinaldearen Amankomunazgoko eta eskualdeko udalerrietako euskara zerbitzuek. Bertan hainbat ikastarotan parte hartu ahalko dute: antzerki teknikak, bideogintza, musika, gorputz adierazpena edo irudia, besteak beste.

### Zainduz programa garatzeko hitzarmena

Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak eta Durangaldeko Amankomunazgoak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute, Zainduz programa eskualde horretara ere zabaltzeko. Zainduz programaren xedea zenbait prestazio eta zerbitzu sustatzea da, euren etxeetan bizi diren adineko mendeak eta euren familiak zein zaindailak lagundu eta zaintzeko.

### Emakume etorkinen gaineko erakusketa

Kainaberak maiatzero antolatzen duen hitzaldi zikloaren baitan, astelehen honetatik hilaren 27ra Sos Arrazakeriaren *Emakumea, etorkina, bizilaguna* erakusketa dago ikusgai Erorrioko Iturrin. Hilaren 26an, Victor Pozas herrialde arabiarren gaurkotasanari buruz ariko da, 19:30ean.

### Eskubide urraketen gaineko mozioa

Hauteskundeeetako ikerketetan baldintza berriak agertu direla eta, Berrizko Udalak konpromisoak hartu ditu: eskubideak urratuta dituzten susmoa duten herritarrek euren egoeraren berri jakiteko tramiteak burutzea, besteak beste. Gobernuari ere egoeraren berri ematea exijitu die.

#### ➤ GARAI

### Elkarteko komunak berrizteko lanak

Garaiko Udalak Otea-Loran elkarteko komunak konponduko ditu, eta dagoeneko adjudikazio fasean dago egitasmoa. Eraikinaren irisgarritasuna bermatzeko helburuagaz egingo dituzte lanak, udal ordezkariak azaldu digutenez.

Udalak diru-laguntza eskatu zion Eusko Jaurlaritzari, lanak burutu ahal izateko, eta 5.445 euro jaso ditu Gasteizko gobernutik. Guztira, proiektuaren aurrekontua 30.874 eurokoa izango dela adierazi digute.

#### Udan egiteko

Orain enpresa bati esleituko dizkiote lanak, eta udalaren asmoa lanak udan garatzea da. Uztailean hasteko itxaropena agertu dute ordezkariak. ■ M.O.

#### ➤ IURRETA

## Ur-hornitze sareko 700 metro ordeztu dituzte Mallabienan

Bigarren mailako hornidura sarea berrizteko planean batu dituzte lanak

Mallabienan ur hornidura sarea berrizteko egitasmoan batutako lanak amaitu ditu Udalak. Argitu dutenez, bigarren mailako ur hornidura sarea berrizteko planaren baitako lanak dira, txarto dauden hoditeria-tarte guztiak konponetzea helburu hartuta.

Mallabienako tartean ur-hornidura sare berria jarri dute, "hoditeria zaharrak sortutako arazo guztiei irtenbidea emanez", azaldu dutenez. Era berean, hodiaren

diametroa zabaldu dute. Denera, 700 metro ordeztu dituzte. Asteon amaitutako beharrak aurrera eroateko errepide azpian pasabi-

de bi egin behar izan dituzte, esandakoaren arabera: BI-623an (50 m) eta BI-623tik N-634ra sartzeko zatian (20 m). ■ A.B.



Errepide azpian pasabide bi egin dituzte. Iurretako Udala

**Iurretako Udala: "Hoditeria zaharrak sorturiko arazoak irtenbidea eman diegu"**

### Bete dituzte aisirako udal-ortu ia gehienak

Bete dituzte eskainitako aisirako udal-ortu gehienak. Izan ere, horietako bat hartzeko egindako bigarren deialdi "arrakastatsuan" hamar eskari berri egon dira. Horrela eman dute jakitera udal arduradunek. Gainera, adierazi dutenez, hiru hilabete igaro ondoren, proiektuan parte hartzerantz animatu ziren lehenengo iurretarren lana ere ageri da.

Egitasmo horregaz, herritarrei lurra lantzeko eremu bat eskaini gura izan die udalak. "Horrela, norberaren kontsumorako fruituak jasotzeko aukera ematea, eta,aldi berean, aisialdi eta ongizate aukera bat ematea erabiltzaileei". ■ A.B.

**IREKI BIDEA EZKERRARI**

Bozkatu aralar

BAKEARI EUSKARARI EUSKAL HERRIARI POLITIKARI



## BERBAZ &gt;

# “Durangoko gizarteak aurrera egin behar du, inor alboan utzi barik”

Enplegua bultzatzen eta gizarte ekintzan behar egiteko premia nabarmendu du egungo Durangoko alkateak



## Aitziber Irigoras •

- Durangoko alkatea
- Zuzenbidean doktorea da
- 37 urte dauzka

“Babeseko etxebizitzaren prozesua azkartzen saiatuko gara”

**P**rentsaurreko eta ekitaldi ugari egunak dira hauek Aitziber Irigorasentzako. Tarte bat hartu eta azkeneko legegintzaldiari buruz eta Durangoren etorkizunaz berba egin du Anbotogaz.

*Zelako legegintzaldia izan da amaitzean dagoen hau?*

Duela hiru urte Juanjo Ziarrusta hil ostean, aurrera egitea eta beste antolaketa batez egitasmoak garatzea lortu dugula uste dut. Pozik gaude, gure programan sartutako proiektu ia guztiak gauzatu ditugulako. Ahaztu barik 21 zinegotzitik zazpigaraz gobernatzen egon garela, horrek beragaz dauzkan gorabeherekin.

*Akordioetara heltzeko premiak zelan eragin du udalaren mar-txan?*

Uste dut denekin berba egin dugula, eta zer edo zelan ia denekin lortu ditugula akordioak. Prozesua kasu batzuetan luzatu egin du horrek, baina egia da hitzarmen batera heldu ostean, horrek sakontasuna ematen diola akordioari, eta erabakia sendoago egiten duela. Nire ikuspuntutik, gehiengoan dagoenak, gehiengo absolutua

“Ez ditut DAZekoen kritikak ulertzen; ia sei milioi inbertitu ditugu alde zaharrean, eta gura izan dutenean batzartu gara”

eduki zein ez, alor guztietan saiatu behar du beste taldeekin akordioetara heltzen.

*Oposiziotik egindako kritiketako bat zera izan da: hainbat obra garestitu eta atzeratu egin direla.* Beste talde batzuek saltzen dutena da hori, baina, badakite jakin, Landakoko igerilekuena, adibidez, prozesu luze eta proiektua izan dela, eta talde politikook aldaketa batzuk egin dizkiogula. Adibidez, erabaki genuen gimnasioan beste pisu bat sortzea, eta erabakiak hartzen ditugun momentuan jabetu behar dugu horrek kostu ekonomikoa daukala. Bide batez, esan nahi nuke igerilekuak oso baloratuta daudela eta jende asko joaten dela. Gizarte ikuspuntutik begiratuta, urte gutxitan amortizatuta edukiko dugun azpiegitura da.

*Trenaren lurperatzeagaz zer gertatuko da?*

Gaur egun geltokia eta kotxetokia dauden lekuan hasierako

proiektua mantentzea eskatzen dugu. Badakigu krisialdia gogorra dela, baina ez dugu eskatzen bihar edo datorren urtean egitea; epe ertainean kontutan hartu eta apurka-apurka egiten joatea baino. Bere garaian Durangoko Udalak bere aldetik jarri beharreko guztia jarri zuen proiektua aurrera ateratzeko, eta espero dugu Eusko Jaurlaritzak bere konpromisoa mantentzea. Trenbideak fisikoki hartzen duen eremuan trenbide zumardia egitea proposatzen dugu. Herriaren bi aldeak lotzeko etorbide zabala izango litzateke; trafiko gutxikoa, espaloi zabalekin eta bizikletentzako bidegorriagaz.

*DAZek duela gutxi udalak informazioz ez diola ematen salatu du, eta Arartekoari egindako kexa bat udalak ez duela erantzun ere egin esan du.*

Ez daukat Arartekoak esandakoaren berririk. Prozesu hori nahiko prozesu burokratiko da, eta erantzuna ez da pasatzen

politikoen eskutik. Edozelan ere, arraroa egiten zait kexa hori; azken urtean hiru bat batzar eduki ditugu, eta azkena karkabaren obrak hasi zirenean eduki genuen, eurek eskatuta, auzokide batek obrak zirela-eta kezka agertu zuelako. Eta ez nigarz bakarrik; teknikoak ere han ziren. Ez dut kritika hori ulertzen, eta ez naiz hor sartuko. Ia sei milioi euro inbertitu ditugu udalak alde zaharrean, eta eskatu duten guztietan batu gara.

*Ia legegintzaldia amaieran 58 etxebizitza zozketatu ziren Durangon. Oraindik aurrera zer politika eramango duzue aurrera?*

Jaurlaritzagaz itundutako babeseko etxebizitzekin eduki dugun esperientziak bere oztopoak izan ditu, eta, horregatik, udaletik beste bide batzuk hartzen ahalegindu gara. Egia esan, 58 etxebizitza zozketatu ditugu, eta askoz ere denbora gutxiago behar izan

“Trena lurperatzean etorbidea egin gura dugu herriko alde biak lotzeko”

dugu Jaurlaritzagaz itundutakoekin baino. Ematen du bizitasun handiagoa daukagula, nahiz eta ez izan nahikoa. Beste arlo batetik, gizarte alokairua garatu gura dugu. Oreka bat lortu beharko da hor; diru kontuak kontutan hartu behar ditugu. Babeseko etxebizitzetan saltzearen antzeko formula bat dago, eta dirua kolpe baten sartzen da. Alokairuko etxebizitzetan ez da hori gertatzen. Zenbakiak zorroztu beharko ditugu eta oreka bat lortu beharko dugu.

*Herriko zer premiak eduki beharko luke lehentasuna?*

Enpleguan eta ekonomian lan egitea da niretzako premia handiena. Horrek geroago eta lotura estuagoa dauka gizarte ekintzagaz; jarduera ekonomikoa sustatu behar da, baina egoera larrian daudenak ahaztu barik. Hainbat herritar dago langabezia denbora luzean, gizartearen muge-tan. Hori jakinda, aurrekontuetan gizarte ekintzako diruak % 28 gehitzea proposatu genuen. Aurten oraindik gauzak nahiko gogor egongo dira, eta esfortzu berezia egin beharko da. Durangarrok gizarte moduan aurrera egin behar dugu, talde bakar moduan. Jendea alboan uzten badugu, ez da izango nik gura dudana gizarte Durangorentzat. ■ A.Ugalde





Erabiltzen ari garenean, informazio gehiago egin ditzake arrazoi tekniko edo komertzialeragatik. Aholkari: 21eko 515/80 E.U. an eskatzen den datu publiketatik inbentarioa erabiltzen dugu gure markatutako-dukopiatan.

<p>Odi-Bakar ETXEBIZITZA BUKATUAK</p>	<p>Eraikin berria ERAIKITZEN HASTEKO</p>	<p>58 BOE ESLEIPEN PROZESUAN</p>
<p><b>GEURE PROIEKTU GUZTIAK EGI BIHURTZEN DIRA DURANGON</b></p>		

[www.sukia.com](http://www.sukia.com)

**sukia**  
Zure etxean zaude.  
Estás en tu casa.

946 46 20 41



## BERBAZ &gt;

# “Durangoko premia errealei erantzuteko diagnosi soziodemografikoa behar da”

Udala eta herriaren artean “deskonexioa” egon dela dio Bilduk, eta parte-hartzearen bidea proposatzen du



**I**nguruko jendeak ilusioa transmititzen diola dio **Urdaspal Bolinaga Bilduko zerrendaburuak. Koalizioak Durangoko Udalerako hainbat aldaketa proposatzen ditu, eta egitasmo horien berri eman digu hauteskondeen atarian.**

**Zelan daramatzazu politika munduko lehenengo egunak?**

Kontutan eduki behar da maiatzaren 5ean jakin genuela aurkeztu ahaliko ginela; horrek eragina izan du gudan. Orain ikusten dugu garai berri bat bizi dugula; ilusioz gaude, eta herriak ere ilusio horregaz bat egin duela ikusi dut. Jende asko gerturatu zait, gauza asko egin ditzakegula esaten eta ilusio hori transmititzen. Laguntasun horrek indar handia ematen du.

**Zelan ikusten duzu udalak azken lau urteotan egin duen lana?**

Guk uste dugu udala herriagaz deskonektatuta egon dela. Hauteskunde garaian baino ez da herritarrekin arduratzen. Pentsatzen dugu herritarrek udaleko proiektuetan parte hartzeko aukera eduki behar dutela, denona delako udala. Ikusten

dugu aurreikuspen barik dabiltzala lanean; momentuko erabakiak hartzen dituzte, arazoak errotik konpondu barik. Hezkuntzan, adibidez, hiru egitasmo txiki isolatu dauzkate, baina ez dago urte osorako plangintzarik. Etxebizitza arloan, eraiki eta eraiki dabilta eta, beharbada, herriak ez du hori behar. Hutsune asko ere ikusten ditugu: Euskararen normalkuntzan, uste

“Hezkuntza teknikaria behar dugu, ikastetxeekin eta aisialdi elkarteekin hezkuntza plan integrala eratzeko”

dugu euskara teknikariari indar handiagoa eman behar zaiola. Ongizateari dagokionez, guztiz isolatuta daude zentroak, eta laguntza eskatzeko hainbeste buelta emateak ez die herritarrei bidea errazten.

**Planifikazio falta aipatu duzu. Kanpainan diagnostikoa egiteko beharraz berba egin duzue.**

Etxebizitza arloan, adibidez, momentuko etekinari begirako ekintzak egiten dira udaletik.

Hauteskundeak baino hilabete arinago etxebizitzak zozketatu ditu udalak; zergatik egin dute hori garai hauetan eta ez lehena? Etxebizitza huts asko dago, baina horren azterketarik ez da egin, azaleko ekintzak egiten dira. Arlo guztietan egoera erreala zein den jakiteko beharrezkoa da diagnosi soziodemografikoa egitea. Azpiegituretan, parekidetasunean, hezkuntzan, inmigra-

zioan... egoera zein den jakin, eta herritarren parte-hartzeagaz lehenetsunak finkatu. Etorkizunerako planak egiteko beharrezkoa izango da diagnosi hori.

**Zer modutara parte hartuko luke herritarrek?**

Foroen bidez, herri-galdeketen bidez... Hainbat formula dago. Ildo horretatik, aurrekontuak eta arau fiskalak beste modu batera planteatu gura ditugu. Herritarrei jasotzen ditugun zergak zer-

tarako diren esan behar diegu. Gaur egun erabiltzen den sistema kontrakoa da; dirua batzen da, eta handik hile batzuetara erabakitzen da zer egingo den. Uste dugu alderantziz izan behar dela; herritarrei esan behar diegu diru hori eskatuko diegula eurek beharrezko ikusten dituzten proiektuetarako. Adibidez, diagnostikoan irten daiteke behar dela haurreskola, zaharretxea eta eguneko zentroa; herritarrei azaldu beharko genieke proiektu bakoitzak zer kostu izango lukeen, lehenetsuna zerk daukan jakiteko euren iritzia edukiko genuke, eta proiektuak ordaintzeko zer zerga erabiliko genukeen adostuko genuke.

**Trena lurperatuta geltokia dagoen lurretan zer gertatuko den ez dago argi. Zer proposatzen duzue?**

Trena lurperatzea, gure ustez, oso garrantzitsua da. Duela gutxi

“Aurrekontuetan lehenetsuna zeri eman jakiteko herritarren iritzia behar da”

## Urdaspal Bolinaga •

- Bildu koalizioko zerrenda burua Durangon
- 29 urte dauzka eta lehen hezkuntzako irakaslea da.

“Ez gaude Zaha Hadiden eraikinak eman lezakeen erreferentzialtasun motaren alde”

klaseko umeei Durangon zer duten gustuko eta zer ez idazteko eskatu nien, eta trena trabetako bat dela esan zuen batek baino gehiagok; txikiak ere konuratzen dira traba horretaz! Gai horretan alderdikeriak sumatzen ditugu. Batzuentzat, Durangori erreferentzialtasuna ematea arkitekto iraniar batek egindako eraikin bat edukitzea da; ez gaude erreferentzialtasun horren alde. Lehen aipatutako diagnostik abiaturik beharko genuke bertan zer egin pentsatzeko. Ikusi beharko da parkeren bat behar den, osasun zentro bat, edo eskolaren bat, hezkuntza zentroak oso beteta daudelako. Lursail handia da, eta gauza baliagarri askotarako erabili daiteke.

**Irakaslea zara. Hezkuntza arloan zer egin daiteke herri mailan?**

Gauza asko. Ekintza oso isolatuak eskaintzen ditu orain udalak; bidegorrien inguruan bide heziketa lantzen da urtean bi egunez; Euskal Astean Jesuitetan jai bat egiten da, eta eskola guztiak gonbidatzen dituzte... Proiektu puntualak dira, ez hezkuntza plan bat. Gure ustez, hezkuntza teknikari baten premia dago. Hezkuntza zentroekin eta aisialdi elkarteekin harremana edukiko luke teknikari horrek, eta elkarlanean hezkuntza plan integrala egin beharko lukete. Teknikariak udaleko beste teknikariekin lan egin beharko luke; parekidetasuna, inmigrazioa... lako gaiak txikitatik landu behar dira ikastetxeetan. ■ A. Ugalde



# KULTURA<sup>></sup>

MUSIKA > TXAPELKETA

## Haur kantarien txapelketaren azken kanporaketa Durangon

Abadiño, Atxondo, Durango, Ermua eta Markinako ume eta gazteek hartuko dute parte Euskal Kantuzaleen elkarteak eta Durangoko Orfeoia antolatu duten saioan. Ekainaren 5ean Bilboko Euskalduna jauregian izango den Bizkaiko finalaren atarian, azkeneko kanporaketa izango da maiatzaren 27ko Plateruenekoa



Iaz txapelagaz bueltatu ziren Xaramel taldeko neska Barakaldon jokatu zen Bizkaiko finaletik.

**A**urten hogeitaseigarren edizioa ospatzen duen Haur Kantari Lehiaketaren barruko Bizkaiko azken kanporaketa da maiatzaren 27an Durangoko Plateruenean burutuko dutena. Besteak beste, Durangoko, Abadiño eta Atxondoko ume eta gazteek kantatuko dute, 20:00etan hasita.

Taldeka, binaka zein bakarka jardungo dute parte-hartzaileek; besteren artean, iaz ere lehiaketan jardun eta epaimahaiaren oniritzia jaso zuen Orfeoi Txikiaren inguruan sorturiko Durangoko Xaramel taldeak hartuko du parte. Iazko moduan bederatzik barik, zortzikosatzen dute gaur egun taldea, baina, orain urtebete legez,

Maiatzaren 27an, 20:00etan hasiko da Platerueneko saioa

Tradizioko kanta zein eurek sortutakoak ere izango dira entzungai

eskolako atsedendietan prestatzen dituzte euren kanta. Platerueneko kanporaketaren programan jasota datorrenez, guztiontzat ezagunak diren *Xalbadorren*

Durangoko Orfeoiaren laguntzagaz antolatu du Kantuzale Elkarteak

*heriotzean* eta *Txanpon baten truke* eskainiko dituzte Xaramel taldeko neska gazteek.

Pianoak eta ahotsak osatutako bikotean ere jardungo dute gainera beheko argazkiko nesketako bik: Imanolen *Mendian gora* kantua prestatu dute Amaieur Azkarate eta Maite Molinak.

Durangoko hitzorduan parte hartuko duten Durangaldeko beste kantariak ere taldeka, bakarka zein binaka eskainiko dituzte Plateruenean kanta: Abadiñoeko abeslari gazteek, esaterako, *Ez dakit* kanta berria prestatu dute txapelketarako. *Txoria txori*, *Zarena zarelako* edo *Oihanean* kanta ere aukeratu dituzte maiatzaren 27rako abadiñarrek. Binaka eta laukotean arituko dira, bestalde, atxondoko parte hartzaileek.

### Belaunaldi berriak

Kantagintzarako gustua belaunaldi berriengan ere sendo errotzeko helburuagaz antolatzen duten Haur Kantari Txapelketaren hogeitaseigarren edizioaren Euskal Herriko finala Hazparnen burutuko dute, ekainaren 11n.

Bakarka, binaka, zein taldeka ere kantatuko dute ume eta gazteek

Kantuzale Elkarteagaz batera Durangoko hitzordua prestatzen jardun duen Durangoko Orfeoi Roberto Palaciosek azpimarratu duenez, "Orfeoiaren ere belaunaldi ordezkapena segurtzeko" garrantzitsua da Haur Kantari Lehiaketa lako ekimenen bitartez kantatzea gogoko duten ume eta gazteekin lan egitea, eta aukerak eskaintzea. ■ I. Esteban

### Amaieur Azkaratek sortutako kanta: 'Aita'

Xaramel taldeko kide legez eta binakako lehiaketan ere parte hartuko duen Amaieur Azkarate gazte durangarrak berak sortutako kanta ere hartuko du parte maiatzaren 27ko Platerueneko emaldian. Azaldu digunez, orain lau hilabete amaitutzat emandako kanta da, Plateruenean, ahotsagaz bakarrik, ezelako instrumenturen laguntzarik barik, eskainiko duena: *Aita* dauka kanta izena, eta sentimendu handiz eginikoak letra eta

doinuak. Kantaren letretan nabari denez, barrubarrutik ateratako kanta da Haur Kantari txapelketaren barruko saioan eskainiko duena. Entzutean, "negarrez hasi izan da jendea", kontatu digu neska durangarrak. Orijinalitatearen eta *a capella*-koen sailean saria lortzeko aukerak dauzka.

Datorren barikuan Durangoko Plateruenean jarduteak zirrara berezia eta "lotsa handia" eragiten diola kontatu digu Amaiurrek.



## kantulagun bazkaria Maiatzak 28

13:00etan Santa Anatik irtenda  
kantu-kalejira Alde Zaharretik

14:30 KANTU BAZKARIA  
Plateruenean

Bazkari txartela: 20 euro. Umeentzako: 11 euro. (Plateruenean salgai)





ANTZERKIA > EMANALDIK

# Durangaldeko konpainien estreinaldiak Leioan

Asteburuan estreinatu dituzte lan berriak Durangaldeko lau konpainiak

**D**urangaldeko Anita Maravillas, Ganso & Cia, Gorakada eta Markeliñe antzerki taldeek, besteak beste, euren lanak estreinatu dituzte, asteburuan, Leioan ospatu duten Umore Azoka jaialdian. Bere ikuskizunak txotxongiloak baliatuz sortzen dituen Miren Larrea zornotzarrak kide duen eta Bartzelonan sortu zuten Anita Maravillas taldearen azken lanaren estreinadiaz maiatzaren 12an burutu zuten Leioan. *Blue bird* izeneko ikuskizuna da Leioan lehenengoz erakutsi zutena.

Markeliñe konpainia zornotzarraren *Anomalia magnética* lana ere eskaini dute maiatzeko Leioako antzerki topaketan: antzezleek "ironia garratzagaz jokatzeko" Markeliñeren lan horretan.

Aldameneko argazkiko  
'Mediopelo' lana aurkeztu du  
Ganso & Cia taldeak

Anita Maravillas, Ganso & Cia,  
Gorakada eta Markeliñe taldeek  
hartu dute jaialdian parte



Zuzendaritzan Gorka Ganso eta Cecilia Paganini dauzkan Ganso y Cia konpainia durangarrak ekoitziriko azkeneko lana ere estreinatu zuten Umore Azokan; *Mediopelo* izeneko. Datozen hileetan Durangaldeko hainbat herritan ere ikusgai izango dugun lana kale-ikuskizuna "xelebre eta dinamikoa" da egileen berbetan.

Abadiñoako Gorakada taldeak ere Leioako Umore Azokan aurkeztu du *Jimen la isla del tesoro* ikuskizun berria. Alex Diazek zuzentzen du lana, eta Santiago Ramosen musika-konposizio berezia dauka. Zigor Bilbao eta Nazaret Froufe berriztarra dira ikuskizuneko antzezleak. ■ I.E.

## GEURE DURANGALDEA



Jose Luis Lizundia  
Euskaltzaina

### Auzobide=udalbide

Gure elizate eta urietan beti egon dira herri-bideak, gehienak auzo batetik bestera, udalerririk desbardinatukoak be bai, ibiltzekoak. Euskaraz auzobideak deitu ditugu; erdaraz "caminos vecinales". Ez dira sekula partikularrak izan, baizik eta herriarenak, beraz, jabetasunaren ardura eta kudeaketa, nori dagokio? Udalari. Badirudi ahaztu egin jakela udal askori eta, konkretuki, Iurretakoari, zeren eta oraintsu pasatu nahi izan genduen eta, kostata pasatu ere, Garaizartik Amatzara. Bide erdian, erdara batuan, noski, "camino privado, prohibido el paso" jarrita zegoen. Koinatuak esan eustan Garaiko Goierrikoak, Iurretako auzo desbardinatukoak –alkateak berak be erraz dauka Goierriko bere familia-koei galdetzea – Abadiño aldera joateko, bai Matienako perratokira, bai San Blasetako ferietara, Gerediagako Salbadorera eta abar, nondik ibiltzen ziren: Amatzara, Garaizar, Elorriaga, Untzueta...

Dirudienez, badira urte batzuk Garaizartik Elorriagarako auzobidea (herribidea), partikular batek zarratu ebala, udal (herri) agintariak zirkinik egin barik; ardura be ez. Orain, bistan dagoenez, gauza berbera jazo da Garaizartik Amatzara eta, nonbait, esan euskunez, udaletxean ez ei dago argitasunik. Artxiiboetan ikertu ezik ezin. Inguruetakoa adineko auzotarrei galdetu jake edo lekukotasuna eskatu? Ez dogu uste. Bide hori ez eta, Durangaldeko beste auzobideak ere ez dira jabe bakoak, ez dira "res nullius" –hori abokatuek ikasi dabe zer den–, herriarenak baitira; beraz, udalarenak.

60ko hamarkadan, oraindik, Mañarian "bide-ipinte eguna" ezagutu dogu, elizateko lau kofradietako herrikideek auzobideak konpontzen zitueena. Auzolan horiek abandonatu dira. Ondo da "bidegorriak" egitea, baina, on litzateke betiko auzobide batzuk "bidegorri" bihurtzea be, pribatizatzen itzi baino lehen. Ez nabil Iurretaz edo Mañariatz bakarrik, Durangaldeko edozein herriz baino.

ARGAZKIGINTZA > TOPAKETA

# 'Begira': erakusketa, berbaldi eta tailerren lehenengo edizioa

Argazkigintza garaikideari buruzko topaketa da Durangon lehenengoz antolatu duten Begira; ekainerako eta uztaileko proposamenak dakartza

Roger Guaus kataluniarraren ekainaren 3tik 26ra arteko erakusketak zabalduko du Durangon argazkigintza garaikideari buruz antolatu duten Begira topaketa. Esperientzia pertsonalean eta eguneroko bizitzan oinarritutako argazki-egunkaria da Guaus-

Roger Guaus kataluniarraren  
'Arrelat' erakusketak zabalduko  
du topaketaren egitaraua



Ekainaren 3an zabalduko dute Guaus-en erakusketa, Durangoko Museon.

ek Durangoko Arte eta Historia Museora dakarren *Arrelat* izeneko.

Ekainean eta uztailean izango diren argazkizaleei zuzenduriko hitzorduetan, Durangaldeko argazkilariek ere hartuko dute parte: batetik, uztailearen 2an eta 3an izango den *Sortze-planteamendutik edizio*-ra tailerra gidatuko du Txelu Angoitia argazkilaria durangarrak. Tailer horretan, "planteamendu fotografikoari edo edizioari irtenbidea bilatzeko bideak" proposatuko ditu, besteak beste, Txelu Angoitia.

Jesus Mari Arruabarrena argazkilaria durangarraren lanen erakusketa ere antolatu dute Begira honen barruan: uztailean izango da "jainkozkoari eta paganoari" buruzko *Ckristopaganía*.

'Sortze-planteamendutik  
ediziora' tailerra gidatuko du,  
uztailean, Angoitia durangarrak

Ricky Dávila argazkilaria bilbotarrak gidatuko du topaketaren barruko bigarren tailerra: *Argazkilaritza ikuskera personal bezala* izeneko saioa izango dute argazkizaleek uztailearen 1ean, 2an eta 3an aukeratu. Tailerretan izena emateko: 658 70 82 64 edo [info@begiraphoto.com](mailto:info@begiraphoto.com). ■ I.E.

**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

MAIATZAK 26 20:00etan  
DF BERTSOZALE ESKOLA 2011  
BERTSOALDI KOMENTATUAK  
U.Iturriaga, G.Lazkano, I.Ibarra eta E.Abasolo

MAIATZAK 27 20:00etan  
HAUR KANTARI TXAPELKETA  
Euskal Kantuzaleen elkarte. Sarrera doan.

MAIATZAK 28 14:30ean  
KANTULAGUN BAZKARIA  
13:00 Kantuan kaleetan zehar  
Bazkari txartela: 20 euro (umeak 11 euro)

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

**TXAKUR TXIKIRIK EZ**  
Kurutzia Ikastolako Antzerki Taldea  
Maiatzak 20 - 22:00etan  
Maiatzak 22 - 20:00etan

Adinekoek egindako  
IV. ANTZERKI  
JARDUNALDIK  
Maiatzaren 25etik 27ra

San Agustin  
KULTUR  
GUNEAK  
DURANGOKO UDALAK

**Hitz**  
liburu-denda

artekalea 14,  
durango (bizkaia)  
[info@hitzilburudenda.com](mailto:info@hitzilburudenda.com)  
946 810 776



BERTSOLARITZA > IURRETAN

# Bizkaiko Bertso Eskolen Eguna ospatuko dute Iurretan, bihar

Lehenengoz antolatu dute Bizkaiko Bertso Eskolen Eguna; besteak beste, Abadiño, Berriz, Durango eta Iurretako bertso eskoletako kideek parte hartuko dute ekimenean

Bertsoeskoletan dabilzan ume, gazte zein helduek elkar ezagutu eta elkarregaz kantatzeko aukera izan dezaten helburu hartuta antolatu dute Bizkaiko bertso eskolek eta Bizkaiko Bertsozale Elkarreak biharko eguna. Abadiñoko, Berrizko, Durangoko eta Iurretako bertso eskoletako kideek ere hartuko dute biharko hitzorduan parte, eta, besteak beste, Zalla, Algorta, Lea-Artibai edo Muskizko bertsolarien bisita jasoko dute Iurretako Bertso Eskolen Egunean.

Maiatzaren 21ean, 11:30etan, Iurretako plazan elkartuko dira Bizkaiko hainbat txokotatik etorritako bertsolari gazteak, eta olgetan jardungo dute eguerdira arte.

Bertsoaren inguruan eta lagun artean igaroko dute biharko eguna

Iturriagak, Estiballesek, Elortzak eta Uriak jardungo dute bertsoan

Bazkalostean egingo du eskola bakoitzak prestatutako erakustaldia, eta bertso saioa eta bertso-kalejira izango dira gero. ■ I.E.

**EGITARAUUA**

**11:30etan:** Eskolen topaketa plazan  
**12:00etan:** Jolasak  
**14:00etan:** Bazkaria  
**16:00etan:** Erakustaldia  
**18:00etan:** Bertso-saioa (Unai Iturriaga, Arkaitz Estiballes, Igor Elortza, eta Jone Uria)  
**19:00etan:** Bertso-kalejira Errerre txarangagaz

BERTSOAK > SAIOA

# DF eskolaren hirugarren edizioa amaitzeko, bertso saioa maiatzaren 26an

Datorren egueneko Durangaldeko bertsolarien saioak itxiko du DF Bertsozale Eskolaren aurtengo eskaintza

Iratxe Ibarra, Gorka Lazkano, Eneko Abasolo "Abarkas" eta Unai Iturriaga bertsolariak batuko dituen bertso saioak emango dio amaiera maiatzean Durangoko Plate-

Lazkano, Iturriaga, Ibarra eta Abarkas egueneko saioan

ruenak hartu duen DF bertsozale eskolaren hirugarren edizioari. Maiatzaren 26an, 20:00etan, Plateruenean bertan ipini dute azken saiorako hitzordua.

Iñaki Murua bertsolari gabi-riarraren binakako saioei buruzko berbaldiak zabaldu zuen DF Bertsozale eskolaren aurtengo edizioa. "Bertsoaldiak komentatuz" eskaini zuen Muruak bere hitzaldia, eta halaxe egin zuen atzo Platerueneko bigarren saioan jardun zuen Amaia Agirre bertsolariak ere: bakarkako lanari buruz jardun zuen Agirrek atzo.

Bertsozalearen inguruko dibulgazioa egiteko helburuz, berbaldi formatuko saio bi eta eskualdeko bertsolariekin egunean egingo duten saioa antolatu dituzte Platerueneko DF bertsozale eskolan aurtengoan. ■ I.E.

EUSKAL ASTEA > EGITARAUUA

**G**aur hasi eta ekainaren 18ra arteko egitaraua aurkeztu du udaleko Kultura Sailak Euskal Astearen XIV. edizioa ospatzeko. Aurreko urteetan legez, herrian lanean diharduten 20 elkarteren kolaborazioari esker osatu dute Durangoko kale, plaza eta kulturaguneak askotariko kultur eta kirol adierazpenez beteko dituen programazioa.

Ia hilabeteko egitarauak jasotzen dituen ekintza eta eskaintzen artean, dantza, musika, kirola, arte plastikoa eta gure tradizio kulturaleko beste hainbat osagai berreskuratzeko helburuagaz antolatutakoak daude.

Udaletik hedabideetara igorritako oharrean, nobedade bi nabarmendu dituzte aurtengo Euskal Astearen eskaintzank: Durangoko Orfeoia antolatuta maiatzaren 27an Plateruenean jokatu duten Haur Kantari Txapelketa, batetik, eta Euskal Herriko Trikitixa Eguna, bestetik.

Dantzak, musikak, kirolak eta arte plastikoak gozagai

Euskal Herriko Trikitixa Elkarreak antolatzen duen jaialdia da ekainaren 4rako Euskal Astearen egitarauak jasotzen duen hori: trikitixa sustatu eta hedatzea helburu hartuta, Durango instrumentu horren zaleen bilgune bilakatu gura dute ekainaren 4an. Trikitixa eskoletako ikasle eta musikariak batuko dira Durangon.

Euskal Herriko Trikitixa Eguna jasotzen du, esaterako, egitarauak

Herriko hogei elkarteren kolaborazioagaz osatu dute egitaraua

Ekainean zehar, umeendako jolas tradizionalak eta meatzarien jolasak, organo eta kantu Gregoriano kontzertua, Durango Hiria txistu lehiaketa eta AIKO taldeak antolaturiko Dantzari Dantzazale Eguna ere izango dira Durangoko Euskal Astearen. ■ I.E.

# Gaur hasita, ekain erdialdera arteko egitaraua Euskal Astearen

Hamalaugarren edizioa du Durangoko Euskal Asteak; aukera zabala dakar egitarauak



**ASTEBURU HONETAN**

**Maiatzak 20, 19:30**  
 'Peter' esku pilota jaialdia Ezkurdi Jai Alai frontoian  
**Maiatzak 21, 19:40**  
 XXIX. Euskal Dantza Jaialdia:

Zuberoa eta Bizkaiko dantzak, Andra Mariko elizpean  
**Maiatzak 22, 12:40**  
 XXIX. Euskal Dantza Jaialdia: Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Lapurdiko dantzak, Andra Mariko elizpean

**Maiatzak 27, 19:30**  
 'Peter' esku pilota jaialdiaren finalerdiak, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan  
**Maiatzak 27, 20:00**  
 XXVI. Haur Kantari Txapelketa, Plateruenean



www.eajpnberriz.org



HAUTESKUNDEAK - KANPAINA

# 46.000 herritarren bozkak erabakiko du Durangaldeko mapa politikoa

Domeka hauteskunde eguna da; Durangaldeko 12 herritako udalbatzarretako banaketa dago jokoan



Arratsaldeko 20:00etan itxiko dituzte hautestontziak, eta bozkak zenbatzen hasiko dira.

**L**au urtean Durangaldeari eta bertako herritarrei eragiten dieten erabakiak hartzen ibili ondoren, domekan politikariei euri dagokie hautestontzien ondoan jesarri eta herritarren erabakiaren zain egotea. Guztira, 46.475 herritarrek dute boto eskubidea Durangaldean, eta horien bozkak erabakiko du 12 herritako banaketa politikoa.

Bildu hauteskundeetan egoiteak hainbat herritako udalbatzarrera astindu dezake. Mañarian, esaterako, EAJko zinegotziak bakarrik egon dira azken legegintzaldian. Iurretan eta Zaldibarren hainbat alderdik osatzen dute udalbatzarrera, baina Ezker Abertzaleak ezin izan du bertan egon.

**Orain lau urte, Abadiñon, 53 botoko aldeagaz bakarrik irabazi zuten independenteek**

Hurretik jarraitzekoa izango da Abadiñoko botoen kontaketa ere. Orain lau urte, Abadiñoko Independentiek alderdiak 53 botoko aldea bakarrik atera zion Ezker Abertzaleari.

Aipatzekoa da herri askotan alkatea berria izango dutela ere. Zaldibar, Otxandio, Izurtza, Elorrio, Berriz, Atxondo eta Mallabian oraingo alkateek ez aurkeztea erabaki dute edo ezin izan dute aurkeztu. Durango, Iurreta, Abadiño eta Garain bigarren legegintzaldia lortu dezakete Aitziber Irigoras, Iñaki Totorikaguena, Jose Luis Navarro eta Gontzal Sarrigoitiak.

**HAUTESKUNDE ERROLDA**

<b>ABADIÑO:</b>	- 5.838 herritarrek dute boto eskubidea
<b>ATXONDO:</b>	- 1.179
<b>BERRIZ:</b>	- 3.763
<b>DURANGO:</b>	- 21.538
<b>ELORRIO:</b>	- 5.851
<b>GARAI:</b>	- 265
<b>IURRETA:</b>	- 3.069
<b>IZURTZA:</b>	- 216
<b>MAÑARIA:</b>	- 398
<b>MALLABIA:</b>	- 981
<b>OTXANDIO:</b>	- 1.006
<b>ZALBIBAR:</b>	- 2.371
<b>GUZTIRA:</b>	46.475

Mañarian, aldiz, bosgarren legegintzaldiaren atarian egon daiteke Jabier Arteaga.

Hauteskunde eguna Aldundi-rako ordezkariak aukeratzeko ere bada eta, era berean, Durangoko Amankomunazgoko osaketa ere baldintzatuko du. ■ J.Derteano

**HAUTESKUNDEAK**  
www.anboto-org-en

Domekan hauteskunde jarraipen berezia egingo dute Anboto komunikabideek [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean. 12 herrietako bozketen kontaketa amaitu ahala Interneten jakinaraziko ditugu, taula eta grafiko argigarriekin. Aldundiko eta Durangaldeko datuak ere jakin bezain laster eskegiko ditugu.

Alderdiek hauteskundeetako emaitzei buruz egindako balorazioak ere jasoko ditugu.



## Turismoa, euskara eta industriaz jardun dute EAJko alkategaiek



Izurtza, Elorrio, Mañaria, Abadiño, Durango, Iurreta eta Berrizko EAJko alkategaiek eskainitako rentsaurrekoan hainbat gairi buruz jardun dute. Euskararen gainean, Amankomunazgoaren Euskara Zerbitzua indartzea proposatzen dute. Turismoaren arloan eskualdeko Turismo Partzuergoa sortzea gura dute, industriaren

arloan Lehiakortasun Polo gogoratu dute, Estatuaren aurrekontuetatik 500.000 euro Durangaldera ekarritz.

Iñaki Totorikaguena Iurretako alkategaiek aste honetako ekimen batean Taxi Auzunearen "arrakasta" azpimarratu eta biribilgunea eta Arriandiko pasabidea "amaitzeaz" daudela ere iragarri du. ■ J.D.



## Abadiñon "elkarbizitzarako ituna" proposatu du Alonsok



Ohiko larrosa gorrien banaketagaz jardun dute asteon PSE-EEko hautagaiek kanpaina egiten. Eguaztenean, gainera, Durangoko zerrendakideekin batera, Jose Antonio Pastor izan zen.

Abadiñon, Tony Alonso alkategaiek PSE-EEren programaren berri eman du. Proposamenen artean, gizarte eragileen

arteko "elkarbizitzarako ituna" egitea dago, "historikoki arrastaka daramatzagun desorekak" atzean uzteko. Merkataritza "berpizteko", Traña-Matienan TAOa ipintzea ere proposatu du, ibilgai-luen errotaziorako: "Lehenengo orduak ez luke kosturik izango, komertzioei sarrera erraztuz". ■ A.U.





## Auzolana eta parte-hartzea, Bilduren kanpainaren oinarri



Domekan 200 lagunetik gora batu ziren bazkaltzeko Elorrion, eta arratsaldean mitina egin zuten plazan, 350 lagunaren aurrean.

Durangon, hainbat sortzailereren babesasajaso eta Santa Susanako komentua kultur etxe izateko proposamena plazaratu du Bilduk; Muruetatorre baserrian euskal sortzaileen egoitza eraikitzea gura dute.

Zaldibarren eta Berrizen bazkariak egin zituzten asteburuan. Iurretan, ostera, auzotarrek batzartu eta herritarrei programa aurkeztu zieten. Gaur txistorragaz itxiko dute kanpaina. Atxondon ere, gaur iluntzean dute ekitaldia. Bestalde, atzo eskualdeko ekitaldia burutu zuten Durangon, Ezkurdi plazan. ■ M.O.



## Eskualde osoko ikuspegia landu gura du Aralarrek



Aralarrentzat zenbait zerbitzu kudeatzeko "bulego administratibo huts" izan beharrean, Durangaldearen "garapen integralerako tresna erabilgarri" bihurtu behar du mankomunitateak. Hainbat gaitan ikuspegi bateratua (mugikortasuna, hondakinen kudeaketa, ongizatea...) eta proportzionaltasuna mantenduz,

zinegotzi ez direnek parte hartzeko estatuak aldatzea proposatu dute.

"Eskubideen atzerapausoei ezkerretikerantzutera" deitu zuten Ezenarro eta Basabe legebiltzarkideek Durangoko ekitaldian. "Zortzi urteotako lanari eusteko" udalean izatea espero du Maeztu alkategaiak. ■ A.B.



## Boto-txartelak banatu zituen Alderdi Popularrak atzo



Atzo eguerdia aukeratu zuen Alderdi Popularrak hauteskunde programak eta boto-txartelak kalean durangarrei eskuz esku banatzeko. Eguerdiko hamabietan Ezkurdi plazan batu ziren alderdiaren Durangoko udalerako Gaztañazatorre zerrendaburua eta beste hainbat alderdikide. Banaketan parte hartzeko,

Durangora bertaratu zen bestalde, PPren Eusko Legebiltzarreko Leopoldo Barreda ordezkaria ere.

Merkatu plaza ingururainoko bidea egin zuten Durangoko PPko ordezkariak domekako udal eta foru hauteskundetan aurkeztu dituzten proposamenak herritarrei zabaltzen. ■ I.E.



## A-8ko ordainlekuak hizpide Durangaldeko ekitaldi nagusian



Astean zehar eginiko eskuorri banaketaz gainera, Ezker Batuak maiatzaren 22ko hauteskunde kanpainako ekitaldia burutu zuen, atzo arratsaldean, Durangon. Eskualde mailako ekitaldi nagusia izan zen atzokoa. Julia Madrazok eta Vicente Silvak hitza hartu zuten ekitaldian; Madrazo eta Silva Bizkaiko ahal-

dun nagusigaia eta Batzar Nagusietarako Durangalde-Arriatiako hautagai dira, hurrenez hurren. Andra Mariko elizpean eginiko ekitaldian, A-8ko ordainlekuak izan dituzte hizpide hautagaiek. Horrez gain, langabeziaren aurkako neurriak eta berdintasunaren aldekoak izan dira EBren kanpainaren ardatza. ■ A.M.



## Traña-Matienako plazan jaialdia egingo dute gaur




Gaur 19:00etan mitina eskainiko du Jose Luis Navarrok Traña plazan. Aurretik umeentzako puzgarriak eta Kart zirkuitua ere egokituko dituzte nahi duenarentzat. Horrez gainera, atzo parrillada egin zuten Muntzaratzen. Horrelako ekimenekin herritarrekin hartu emana estutu nahi izan dute. Era berean, facebook-en duten orrian hurrengo legegintzaldirako dituzten 70 helburuak jaso dituzte. ■ J.D.



## Etkez etxe banatuko du programa HTk



Garaiko Herriko Taldeak kanpaina egin du egunotan, eta gaurko eguna ere horretarako aprobetxatuko dute. Atzo hasita, euren proposamenak batzen dituen programa eta bozkak banatzen dihardute, eta azken eguna ere etkez etxe eta baserri baserri igaroko dute. Joan zen asteburuan argazkia atera zuten hautagai guztiekin, eta kartelak atera dituzte irudi hori erabilita. Herrian itsatsi dituzte asteen kartelak. ■ M.O.



## Elorriarren iritzia udalera eramateko asmoa du SQ2-k



Eskubeteuli Elorrioko plataformak hautagai zerrenda eta asmoak ezagutarazteko, herritarren artean hauteskunde programak banatu ditu; barikuro egiten den merkatuan banatu dituzte gaur programok. Hainbat proposamen aurkeztu dute maiatzaren 22ko hauteskundeetarako. Besteak beste, herritarren eta erakundeen arteko hartu-emana sustatu gura dute. Udalaren kudeaketa gardena ere aldarrikatzen dute. ■ A.M.



# BERBAZak alderdi politikoeekin



## Pilar Rios •

PSE-EE

Pilar Riosek Durangoko premiei buruzko ikuspuntua eman digu Berbaz atalean. Trena lurperatzea eta Urki-Hegoalde lotunea gauzatzea "funtsezko" proiektutzat jo ditu. Era berean, 2010ean EAJgaz Durangon lotutako aurrekontu akordioa "oso ona" izan dela uste du: "Giltzarriak diren proiektuak hastea lortu dugu. Gainera, enplegu politikak ere martxan ipini ahal izan dira". Hala ere, azken arlo hori gehiago indartu daitekeela uste du.

Merkataritza suspertzeko neurriak beharrezko direla ikusten du: "Neurri zehatzak pentsatzeko espazioa eta baliabide ekonomikoak behar dira".

**"Trena lurperatzeak eta Urki-Hegoalde eraztunak asko hobetuko dute Durango; funtsezko proiektuak dira guretzat"**



## Dani Maeztu •

Aralar

Aralarren ustez, Durangok lurzoru mugatua du eta "ezin du gehiago hedatu". Horregatik, trena lurperatuta libre geratuko den espazioa zelan kudeatu erabakitze "barrura begirako planteamenduak" egiten hasteari beharrezko deritzo: "Epe luze-ertainerako plangintza egin behar dugu, eta gobernu taldearen aldetik hori faltan bota dugu".

Herriko eragileak batzeko kultur etxe baten premia dagoela diote, eta baita zerbitzu sozial guztiak toki berean batzeko eraikin baten falta ere. Mugikortasunari dagokionez, "oinezko eta bizikletazkoei lehentasuna eman beharko genieke".


**"Herritarren parte hartzeagaz, Udalak beharbada ez zituen hartu dituen erabaki batzuk hartuko"**

## Juan Jose Gaztañazatorre •

PP

Alderdi Popularrak ere Durangoko dituzten proposamenen berri eman digu Berbaz atalean. Trenaren lurperatzea amaitzea "ezinbestekoa" dela diote.

Horrez gainera, gizarte ekin-tzarako diru gehiago bideratu beharko litzatekeela diote: "Egoera lazgarrian dagoen jende askoren berri daukagu". Lana sustatzea ere Udalaren eginbeharren artean ikusten dute: "Merkatari eta enpresari txikiei lagundu behar diegu, horrek Durango osoari lagunduko diolako; ekonomia berpizten saiatu behar dugu".



**"Merkatariei eta enpresariei laguntzeko neurriak abiatuta durangar guztiei lagunduko diegu"**

## Jose Luis Zubillaga •

EB-Berdeak

Krisiari aurre egiteko erakunde publikoen esku-hartze handiagoa eskatu du Zubillagak: "Horiek dira dirua ipini behar dutenak. Gobernu, aldundi eta udalek ez badute dirurik ipintzen herrian hobekuntzak egin eta enpresei lana emateko, krisia ezin da amaitu".

Zubillaren ustez, enpresa askok gehiegi erabili dituzte EREak: "Erakundeetatik diote kritirik irteten ari garela, baina esan diezaiotela hori EREan urtebete daroanari, edo langabezia presztazioa amaitu zaionari. Ez dute berdin pentsatuko".



**"Krisialdi sasoian daukanak ipini behar du dirua; erakundeek enpresei lana eman behar diete"**



## Jose Luis Navarro •

Independienteak

Datorren legegintzaldirako asmoen artean arau subsidiarioak "desblokeatzeko beharra" azpimarratu du Navarrok, "batez ere, industria berriak erakarri ahal izateko". Bide horretatik, "Traña-Matienako sarreran industria poligono bat" egin gura ei dute. Etxebizitza arloan, berriz, zegoen premia "asetu" dutela pentsatzen dute.

Zelaieta auzoari dagokionez, oinezkoentzako guneak falta direla diote, eta hori bultzatuko dutela: "Elizaren eta udaletxearen artean plaza bat egokia litzateke, esate baterako".

**"Abadiñoako auzoak desberdinak izateak ez du esan gura herritarrak banatu behar direnik"**



## Gontzal Sarrigoitia •

Garaiko Herriko Taldea

Azken legegintzaldian egindako lanagaz gustura daude Herriko Tadekoak. Kultur Etxea amaituta, gazteak eta elkarteak toki berean batu daitezke, eta hori garrantzitsua dela diote. Plaza inguruko urbanizazio lanak gauzatuta inguru hura "dotore" geratu ei da, eta "aparkalekuen arazoak konpontzen ere lagundu du". Baserri bide batzuk ere konpondu dituzte legegintzaldi honetan.

Herri txikia izatera, Garain jende asko hurreratzen ei zaio, baina ez du kexarik: "Nahiago dut hori, horrela lehen eskutik dakidalako zer behar duten".

**"Jendea konfiantzagaz hurreratzen zait eta hori ona da; zer pentsatzen duten eta zer behar duten jakin gura dut"**



# ALKIMAX

Alquilamos soluciones

ORGAK, PLATAFORMAK,  
HONDEATZAILEAK, ...  
ERABILTZEAN  
SEGURTASUNA  
ZAINTEKO  
IKASTAROAK

Eitua industrigunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 94 682 45 50 • [alkimax@alkimax.com](mailto:alkimax@alkimax.com)

## LORAZAINTZA



Motozerra



Lorezaintzarako traktorea



Zulagailua



Gasolinazko motordun aitzurra

## ERAIKUNTZA



Plataforma jasogailua



Minidumperra



Mini zamagailua

4 x 4 dumperra birakaria eta bere kabuz kargatzekoa



Mini hondeagailua 1.800kg

## JASOGAILUAK



Maneiagailua



Beso artikulatuak



Artazia



Eskurra

[www.alkimax.com](http://www.alkimax.com)





# IRITZIA >

gutunak@anboto.org

## Gutunak @

### Udal hauteskundeetarako Durangoko hautagaiei gutuna

Agur t´erdi:

Aurten maiatzean udal hauteskundeak direla kontuan hartuta, Euskal Herrian Euskaraz erakundeak ondorengo mezua luzatu nahi dizue.

Euskararen auziari lotuta, sarri badirudi goi mailako administrazio eta politikarien esku dagoen gaia dela euskararena. Honi hertsiki lotuta, hizkuntza politikaz ari garenean, erreferentzia orokor horiek izaten dira nagusi. Baina hau ez da horrela, eta udaletxeek edo herriko etxeek ezinbesteko papera jokatzen dute euskararen normalizazioa lortzeko. Udal bakoitzak bere hizkuntza politika dauka eta bertatik neurri politikoak hartu behar dira euskara berreskuratu ahal izateko. Beraz, zuek, alderdiek, duzue erantzukizun nagusia gai honetan eta horregatik jotzen dugu zuengana.

Urteetan zehar aurrerapausoak eman dira hainbat eta hainbat udaletan, baina oraindik orain, egoera oso kezagarria dela deritzogu. Oro har, indarrean diren hizkuntza politikek ez diete udalek duten erantzukizunari erantzuten. Besteak beste, Kontseiluak berriki Euskal Herriko 60 herritan egindako neurketak egun dauden hutsune nabariak agerian utzi ditu. Beraz, egun euskaraz eta euskaldunok jasaten dugun bigarren mailako egoera gaitzetzeko eta euskararen normalizazioa erdiesteko helburuarekin hizkuntza politika oso eta eraginkorrek abian jartzea exijitzen dizuegu. Honekin batera, udal hauteskundeetara begira neurri zehatzak hartu behar dituzuela uste dugu:

1. Hauteskundeetarako aurkeztu dituzuen hautetsi guztiak euskaldunak izatea espero dugu.

2. Udalerako zuen programan hizkuntza politika oso baten proposamena egitea eta neurri politiko zehatzak planteatzea. Oinarrizkoak hauek direla deritzogu:

- Udalerrian euskara ofiziala eta lehentasuneko izendatzea.
- Printzipio horri lotuta, hizkuntza politikaren helburu nagusia euskararen normalizazio izatea, horretarako behar den determinazioz jokatuz.
- Herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko neurriak. Herritarrei, udalarekin izango dituzten harreman guztietan euskara erabiltzeko eskubidea bermatu behar zaie, salbuespenik gabe.
- Horretarako, udalak egungo langile erdaldunak euskalduntzeko daukan planari erabilera zehatza eta egonkorra eman behar zaio eta kontratatu beharreko langile guztiak euskaldunak izan behar dira.
- Udalean lan hizkuntza euskara izan behar da. Honi lotuta, hautetsiek euskara erabili behar dute, eredia emanez: udal plenoetan, txostenetan, prentsa-aren aurrean...
- Hizkuntza politika horrek eskatzen dituen baliabide ekonomiko, humano, politiko eta azpiegiturazkoak ezarri behar dira.
- Udal araudi eraginkorrek proposatu eta sustatzea. Onartutako udal ordenantzen bidez hizkuntza arauak ezarri behar dira. Ia urtebete da onartu zirela eta gauzak ez dira ia aldatu. Ordenantzak bete!
- Paisaia linguistikoari begira, udalaren esku dauden esparru guztiak euskaraz egotea.
- Udalak, argitaratzen dituen euskarri komunikatibo guztietan (bandoak, aldizkariak, inprimakiak, lanpostu deialdiak...) euskara lehentasunez agertzea.
- Aurrekontuen %2 gutxienez, euskararen normalizazioak eskatuko dituen egitasmo eta ekintzetarako bideratzea.
- Parte-hartzea eta elkarlana. Udalak, normalkuntza planen osaketa, inplementazio eta segimendurako beharrezkoa den organo parte-hartzailea sortu behar du. Euskalgintzarekin eta bestelako eragileekin (herritarrek, eskolak, merkatariek, enpresak...) elkarlanean aritzea ezinbestekoa da, parte-hartzerako bide eraginkorrek eskainiz.

Gure ustez, euskararen normalizazioan urrats garrantzitsuak emateko neurri hauek hartzea funtsezkoa da. Argi dugu horiekin soilik ez dela normalizazio

osoa erdietsiko, bestelako aldagaiak badaudelako, baina udal administrazioak dagokion erantzukizuna bete behar du. Alderdiei, administrazioetan duzuen ardura politikoa ikusirik, neurri hauek guztiak planteatu eta abian jartzea dagokizue.

Behin zuei eskaera bideratuta, datozen udal hauteskundeetara ematen diegun garrantziaren pareko jarraipena egingo diogu hauteskundeetarako aurkeztu dituzuen zerrenda eta programei. Euskararen normalizazioaren aldekoak direnak aintzat hartuko ditugu, baina egoerak eskatzen duen neurrikoak ez diren heinean, jakin ezazue beharrezko salaketa bideratuko dugula.

Besterik gabe, euskararen beharretaz jabetu eta gutun honetan esandakoak kontuan hartu eta beteko dituzuelakoan, jaso ezazue gure agurra.

Durangoko Euskal Herrian Euskaraz

### Eskerrik asko Durangoko EAJ, PSE eta PP

- Eskerrik asko Tabirako Andalatorre baserria, Durangoko azken baserrietako bat, botatzeko aukera eman zenuelako.

- Eskerrik asko AHTa eraikitzeke udalaren lurrak, durangar guztion lurrak saldu zenituztelako durangarroi baimenik eskatu gabe.

- Eskerrik asko hainbat durangarri lurrak lapurtzen etorri direnei (ADIE, Espainiako Sustapen Ministerioa...) erraztasun guztiak emateagatik eta gainera lapurrei udaltzaingoaren babesa jartzeagatik.

- Eskerrik asko Durangoko auzo bi (Tabira eta Larrinagatxu) guztiz txikitu dituztenei zuen laguntza guztia emateagatik.

- Eskerrik asko hainbeste maite duzuen AHTa eraikitzeke lanetan kontratatzen dituzten atzeritar guztiei euren jatorrizko herrialdeko lan hitzarmenaren arabera kontratuak eginez beste langileen soldataren erdia ordaintzen dietelako, eta horrela lan prekarietatea bultzatzen duzuelako eta prekarietate horren erruz orain arte lau langile gutxienez hil direlako obretan.

- Eskerrik asko AHTak ekarriko dizuen negozioa justifikatzeko azken urteotan ezkutatu diguzuen informazioarengatik eta esan dizkiguzuen gezur guztiengatik; adibidez, obrek lanpostuak sortuko zituztela, gero, benetan, gure eskualdean obrek guztia ziztu bizian txikitzen duten bitartean langabezia bikoiztu egin den arren.

- Eskerrik asko diru publikoa, geure dirua, behar ez dugun AHT hori egiteko gastatzen duzuelako, eta horretarako osasunean, hezkuntzan, kulturen, beharrian sozialetan eta abarretan murrizketa ikaragarriak egiten dituzuelako.

- Eskerrik asko AHTari desobedientzia zibila erabiliz eta arrazoiak emanez aurre egin diotenei, errepresioaren bidez erantzun diezuelako beti, jendea atxilotuz, zuen poliziek jipoi beldurgarriak emanez eta AHTaren aurka zerbait esaten duen edonor "terroristatzat" joz.

- Eskerrik asko herriari hitza ematearen kontuarekin ahoa betetzen duzenok inoiz ez diozuelako gizarteari AHTaren inguruan zer iritzia duen galdetu, eta horren ordez zuen negozioa eta txikizioa inposatu dizkiguzuelako.

- Eskerrik asko AHTak eragingo duen energia gastu neurrigabeari aurre egiteko, orain, Bizkaia eta Gipuzkoa zeharkatuko dituen goi tentsioko linea bat jarri nahi diguzuelako, eta lehendik azpiegitura txikitzailez betetako lurraldea are gehiago suntsituko duzuelako.

Bihotz-bihotzez, eskerrik asko, horregatik guztiarengatik eta askoz gehiagongatik.

Eta zuk, durangar horrek, nahikoa izan ez baduzu eta horrelako gehiago eta txarragoak nahi badituzu, bozkatu EAJri, PSEri edo PPri. Ez dizute kale egingo.

Durangoko AHT Gelditu Elkarlana



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



**anboto**  
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte  
2011ko maiatzaren 20a - 10. urtea - 416 zk.

Laguntzailea:  Bizkalko Foru Aldundia

Eta honako udal guztiak:



**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.

**Administrazio burua:**  
Itziar Belar

**Administrazioa:**  
Miren Abasolo.

**Publizitatea:**  
Itziar Azula, Goretzi Alonso eta Amaia Huarte.

**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde, Aritz Maldonado.

**Maketazioa:** Ainhoa Arizmendiarieta.

**Testu zuzentzailea:** Igor Elortza.

**Argazkilaria:** Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.



# KIROLAK >

## Goi mailako riderrak Durangon, Txotx! Mini Ramp txapelketagaz

Estatuko txapelketarik garrantzitsuena izatera heldu da, antolatzaileen berbetan. Lehiaz gainera, ikuskizuna eta jaia ziurtatuta daude Landako Gunean, zapatuan 12:00etan hasita.



Mini Ramp modalitateko rider garrantzitsuen jauzi ikusgarriekin ikuskizuna ziurtaturik egongo da Landakon. Asier Arroita

2007an lehenengoz antolatu zutenetik, haziz joan da Txotx! Mini Ramp txapelketa, 5. edizio honetan, iazko arrakasta errepikatu gura dute; 1000 pertsona inguru batu ziren Landako Gunean.

Gaizka Izagirre eta Armando Santos antolatzaileen arabera, ekimena haziz joan da bost urte hauetan; Santosek, jaialdia- ren izaera "orijinala" azpimarratu du. "Bi jai eredu uztartzen dira Txotx Mini Ramp txapelketan: alde batetik, euskal giroa, eta

bestalde, skate kultura". Izagirik, ostera, giroa nabarmendu du batez ere.

Txotx! txapelketa Estatuko "garrantzitsuena" da Mini Ramp modalitatean. Hain zuzen ere, Mini Ramp modalitatean gaur egungo rider onenetakoak lehiatuko dira Durangon. Etxeko ordezkariak gain (Xabi Elorriaga, Alain Saavedra...), kanpotik etorriko direnak ere badira: Ingalaterratik, Estatutik, Frantziatik eta Brasildik etorriko dira riderrak. Aurten ez dira egongo Ivan

**Mini Ramp modalitateko rider garrantzitsuenak lehiatuko dira Durangon**

Rivado eta Alain Goikoetxea; biak min hartuta daude, eta ez dira Durangon lehiatuko.

Guztira, 10.000 euro banatuko dituzte saritan; erdia irabazlearentzako izango da. Sari "garrantzitsua" izan arren, antolatzaileek Landako Gunean bizi den giroa azpimarratzen dute; 12:00etan hasita, iluntzera arte luzatuko da jaia. Iazko moduan, "Skate librerako gunea" egongo da; erakustaldien bitartean, musika zuzenean eskainiko du Positiva taldeak. ■ A. Maldonado

## 12 ordu behar izan zituen Jon Karrok Iron Cat proba burutzeko

Lehenengo mailako diabetea edukita, Iron Man bat burutu duen lehendabiziko europarra da Jon Karro. Maiatzaren 14an L'Ampollan (Katalunia) jokatu zuten Iron Cat proban 99,9 postuan amaitzea lortu zuen abadiñarrak. 12 ordu pasatxo behar izan zituen Karrok proba osatu ahal izateko; 12:06:02 ordu, hain zuzen ere. Karrok azaldutakoaren arabera, denboraldiko helburu nagusia zen proba horretan parte hartu eta amaitzea. Iron Cata Atxintxika triatloi taldeko Alexander Agirretxek irabazi zuen; 08:42:09 behar izan zituen lasterketa amaitzeko. ■ A.M.

## Kulturalak igoera faseko partidua du domekan

Domekan, 18:30ean, Durangoko Kulturalak Rayo Cantabria hartuko du Tabiran. 2.B mailarako igoera faseko final laurdenak jokatu dira asteburu honetan; joaneko partidua izango da domekakoa. Axier Intxaurrenaren entrenatzailea "pozik" agertu da zozketaren emaitzagaz. "Partidu gaitzak izango diren arren, hurbil jokatuko ditugu, behintzat".

Intxaurrenaren kantabriarrek gola egiteko duten gaitasuna nabarmendu du. "Garrantzitsua izango da golik ez jasotzea" azpimarratu du Kulturalako entrenatzaileak. Hain zuzen ere, Rayo Cantabria bere taldeko txapelkunordea izan da. Durangoko taldeak hiru kanporaketa igaro behar izango ditu 2.B mailara igo ahal izateko. Talde kantabriararen aurkakoa partidu horietako lehenengoa izango da. ■ A.M.

**bildu berriz**  
**eman botoa**  
 herri parte-hartzaile eta biziaren bila



# Historia egin du Zalduak Lehentasunezkora igota

Denboraldi hasieran helburua "ahalik eta goren" ibiltzea bazen ere, igoera matematikoki ziurtatu du dagoeneko Iñaki Garciaren taldeak



Etxean, zaleen aurrean Gatikari irabazita lortu zuen igoera Zaldua futbol taldeak. A.V.

Historian lehenengoz, Lehentasunezko Mailan egongo da Zaldua datorren denboraldian. Bi jardunaldiren faltan, zaldibartarrek eta lurretakok matematikoki ziurtaturik dute igoera.

Gatika B taldeari 1-0 irabazi ostean lortu dute igoera zaldibartarrek. Partidu gaitza jokatu ostean, igoera ziurtatzeko puntuak poltsikoratu zituzten Iñaki Garciaren mutilek. Entrenatzailearen berbetan, ez zuten itxaroten maila bat gorago igotzerik.

**Azken jardunaldian derbia jokatu dute lurretakoren aurka**

"Gure helburua ahalik eta goren egotea zen, baina ez genuen uste igoko ginenik". Garciaren arabera, igoeraren gakoa jokalarien eta gainerakoen "gogoa, ilusioa eta konpromisoa" dira.

Aurrera begira, liga amaitzeko geratzen diren bi parti-

duak ditu gogoan Garciak. "Igoera ziurtatu arte tentsio handia bizi izan dugu, eta gaitza izango da orain tentsio hori mantentzea". Bi jardunaldi geratzen dira liga amaitzeko. Azken jardunaldian, lurretakoren aurkako derbia jokatu dute; azken partidu hori jokatzeko "gogotsu" daude; lurretakok ez du partidurik galdu orain arte. Bi taldeen igoera ospatzeko aukera izateaz gainera, Zaldua utziko duten jokalarientzat berbetan, taldea "pozik" etorri da Durangora. "Partida gaitza da, baina gogoz gatoz". Partida 19:30ean hasiko da, eta sarrera doakoa izango da. Antolatzaileen berbetan, jendea Landakora hurbiltzea eta saskibaloiaz gozatzea bilatzen dute partidu honekin. ■ A.M.

## Euskadik eta Kubak partida jokatu dute martitzenean

Kubako emakumezkoen selekzioa olinpiaden aurrekoa prestatzen dabil Europa osoan zehar

Goi mailako saskibaloia lehia izango da martitzenean Landakon. Emakumezkoen euskal eta kubatar selekzioek elkarren aurka jokatu dute. Bi taldeak momentu "onean" helduko direla azaldu du Luis Ledesma eus-

**Orain arte, Kubak beti irabazi dio Saskibaloiko Euskal Selekzioari**

kal hautatzaileak; hain zuzen ere, etxeko jokalariek IV. Nazioen Txapelketa jokatzetik datoz. Kubatarrak, ostera, European barren biran dabilta, olinpiar jokoen aurrekoa prestatzeko asmoz. Miren Agirreigokoa jokalarien berbetan, taldea "pozik" etorri da Durangora. "Partida gaitza da, baina gogoz gatoz". Partida 19:30ean hasiko da, eta sarrera doakoa izango da. Antolatzaileen berbetan, jendea Landakora hurbiltzea eta saskibaloiaz gozatzea bilatzen dute partidu honekin. ■ A.M.

**Mikel Bilbao**  
•Radio Euskadiko kazetaria



**Gogoan izatekoa**

Adituarentxokoa

Ahazten ez diren partida horietako bat utzi digu jada Eskuz Banakakoak. Irujo eta Haimar Olaizolaren arteko partiduaren ondoren, ez ziren gutxi txapelketaren historiako partidu onenetako bat ikusi dutela adierazi zutenak. Partidaren bezperan hainbat duda zeuden bi pilotarien sasoiaren inguruan; Haimarrek ozta-ozta zeraman eskuma, eta Irujo ez jokatzekotan egon zen, ezker eskuan dituen minak zirela-eta. Azkenean biek jokatu zuten, eta distantzia horri neurria hartua diotela erakutsi zuten.

Eskuz Banakakoak horrelako partidu baten beharra zuen. Txapelketa umezurtz geratu da; partidak sakeetan erabakitzen dira, ez dago peloteorik ia. Horren ondorioz, pilotalekuetako harmailetan hutsuneak ikusi ditugu. Adibide legez, Patxi Ruiz eta Bengoetxearen partidu aipatu daiteke. Hasierrako jokaldiegaz erabaki zen partidu, eta partidu ikusteko 50 euro ordaindu zutenek haserre antzean irten zuten pilotalekutik.

Partidu onak gutxi dira. Gainerakoak partidu hasieran erabakitzen dira, eta markagailuetan alde nabarmenak ikusten dira. Horregatik nagusitu dira Binakakoa eta Lau t'erdikoa. Eskuz Banakakoa bigarren maila batera pasatu da. Hala ere, Haimar eta Irujoren partidak aspaldiko distira izan zuen. Pilotak frontoi osoko banakako lehia izatearen esentzia berreskuratu zuen egunean, hantxe egon nintzela esan dezaket nik.

*\*Erredakzioan itzulia*

## Atxondoko frontenis taldea garaile Bizkaiko Txapelketan

Bizkaiko taldekako txapelketan garaile izan ondoren, binakakoan ere txapela lortu du Atxondoko taldeak; Candik eta Patxik osatzen dute bikote irabazlea.

Bizkaiko binakako txapelketako finala Derion jokatu zuten; Atxondoko eta Bilboko taldeek jokatu zuten elkarren kontra. Bizkaiko txapela lortu ondoren, Atxondoko frontenis taldearen helburua Euskadiko txapelketa izango da. ■ A.M.

## Mallabiko Biharko Izarrak txapelketako lehen sailkatuak

Otsailetik jokoan den Mallabiko Biharko Izarrak txapelketa ko ligaxka azken txanpan sartu da. Finalerdietarako sailkatuko diren zortzi pilotariak nortzuk izango diren erabakitzen dabil azkeneko partidu hauetan; hain zuzen ere, horietako bi nortzuk izango diren erabaki zen aurreko astean; Landaburu elorriarrak eta Arresek aurrera egingo dute.

Domekan ligaxkako azkeneko jardunaldia jokatu dute Mallabiako pilotalekuan. Bertan, lau bikote arituko dira, sailkatzeko azken aukeraren bila:

**Landaburu elorriarra eta Arrese sailkatu dira finalerdietarako**

lehenengo partiduan, Ezkurdia-Telletxea eta Ansotegi-Diez bikoteek jokatu dute elkarren aurka. Arratsaldeko bigarren partiduan, ostera, Ojuel-Lukin eta Victor-Aretxabaleta izango dira nor baino nor gehiago arituko direnak. Txapelketa jokatzeko den zortzigarren aldia da hau. ■ A.M.

**Hurrengo eralkuntza**



**DURANGO**



**IURRETA**

**ZARATE ELEXPE ERAGILEAK**

Bixente Kapanaga 19, behea • Tel.: 94 681 66 73  
Iurreta • www.zarateylexpe.com

Elorrion ere aukera onak



**Podologo**

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea  
48200 DURANGO  
Tel./Faxa: 94 621 54 04

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz



**Podologo** 188. Elkartokidea



# AMALURRA<sup>></sup>



Durangoko Merinaldearen  
Amankomunazgoa  
Mancomunidad  
de la Merindad de Durango



## Energia baliabideak herritarren eskura ipini gura dituzte Abadiñon

Azken urteetan aurreztutako energiagaz, hainbat ideia eta egitasmo burutu gura dituzte datozen urteetan

Igerilekuetan ipinitako eguzki panelei esker, CO2aren 10,5 tona isuri ekiditea dute helburu

Gasolindegi elektrikoa ipini gura dute; zerbitzu horrek 5.000 euroko diru-sarrerak izan ditzake urtean

Abadiñoko Udalaren iritziz, udalerria erreferentzia bihurtu da Bizkaian, eraginkortasun energetikoaren alorrean. Hainbat instalazio ditu gaur egun Abadiñok, deneriko energia aprobetxatzeko: eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaiko isolatua eta sarekoa, biomasa, kogenerazioa, energia eolikoa eta energia geotermikoa. Horretaz gainera, argiteria publikoa ere teknologia ugarian kudeatzen dute: telekudeaketa sistemak, LED sistema eta eraginkortasun energetiko handiko sistemak.

Azaldu dutenez, azken urteetan egindako lan horrek emaitzak dakartza energia aurrezteari dagokionez, eta datozen urteetarako etekina handiagoa izatea itxaroten dute. Gainera, kutsadura murriztuko dela diote, baita atmosferara isuritako CO2 emisioetan ere. Udal ordezkarien iritziz, horrelako erabakiak

hartzen jarraituta, segurutzat dute herri garbiagoa eta energetikoki eraginkorragoa izango dutela etorkizunean.

### Laguntzak

Egitasmo hauek guztiak, "udalaren diru-kutxak larregi hipotekatu barik" egin direla azpimarratu dute. Lanetarako, Energiaren Euskal Erakundea (EEE), Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Dibertsitaterako eta Energia Aurrezteko Institutua eta Espainiar Estatuko E Planen diru-laguntzak jaso dituzte.

Hainbat datu helarazi dizkigu udalak, egindako lanen eta aurreikuspenen arabera. Dioteenez, udal pabilioiko gasaren kontsumoa % 80 aurreztea itxaroten dute, esate baterako. Igerilekuetan ipinitako eguzki panelei esker energia termikoa ekoitziko dute, eta CO2aren 10,5 tona isuri ekiditea dute helburu. Uribitarteko parkeko

sistema eoliko eta fotovoltaikoari dagokionez, aerogeneradoreari esker 6,5 kwh ekoizten dira, eta plaken eraginez 6 kwh. Sistema horrek parkea kanpoko laguntzarik barik elikatzea dakar, argiztapena eta ureztatzea kon-tuan izanik. Nagusien egoitzako instalazioak ere % 80ko energia aurrezkia eragitea itxaroten dute.

### Gasolindegi elektrikoa

Udal pabilioian, sare elektrikora konektatutako eguzki energia fotovoltaikoa dago. Oraingoz bertan ateratakoa Iberdrolari salduko diote, baina, gerora, gasolindegi elektrikoa ipintzea gura dute. Ibilgailuentzako zerbitzua litzateke, eta aurreikuspenen arabera, 5.000 euroko diru-sarrerak izan ditzake urtean. Ikastetxe eta udal lokaletarako, biomasa bidezko energia termikoaren banaketarako sarea ere proposatu dute.



laguntzaileak



ABADIÑOKO UDALA



ATXONDOKO UDALA



DURANGOKO UDALA



ELORRIOKO UDALA



MALLABIKO UDALA

# LAUHANKA<sup>></sup>



Katua oso txikia bada, hiru ordurik behin emango diogu esnea

Temperatura iraunkorren eduki behar da, aire korronterik barik

Ibiltzen hastean, istripuak saihesteko neurriak hartuko ditugu etxean

## Katakumeak, arreta handiz zaindu beharreko maskotak

Hasierako bi hilabeteetan euren amagaz egotea litzateke egokiena, baina suertatu daiteke beste egoera batean aurkitzea. Katakumea etxean bakarrik dugunerako, hona hemen gomendio batzuk.

Katakumeek amaren babesa eta elikadura behar dute hasierako egunetan, eta, horregatik, euren alboan egotea dute onena. Amaren titiko esnea edango dute, eta nutrizioa bermatuta izango dute. Baina erosi egin ditugulako, eman egin dizkigutela, topatu egin ditugulako... hainbat arrazoi tarteko, gure eskuetan pasatu ditzakete bizitzako lehenengo egunak. Hori dela-eta, ezinbestekoa izango da zaintza egokia ematea.

### Biberoia

Lehenengo eta behin egin beharreko gauza animalien dendar edo albatariarengana joan eta biberoi bat erostea izango

da. Horregaz batera, zelan ez, esnea; kasu honetan, esne-hautsa. Katua oso txikia bada, 10-15 egun tartekoa, hiru ordurik behin emango diogu esnea, gutxi gorabehera.

Kontuan izan beharko dugu, une hauetan katuak jan eta lo bakarrik egingo duela. Izan ere, ia ezingo da ibili ere egin, eta ikusi ere gutxi egingo du oraindik. Dena dela, usaimen ona dute, eta jabea segituan ezagutuko du bide horretatik.

### Baldintzak

Jatea derrigorra da katuarentzat, baina baita digestioa ondo egitea. Gainera, hasieran ez dakite euren kabuz txiza eta

kaka egiten, eta estimulazioa aukera ona izan daiteke guztia errazagoa bihurtzeko.

Adituen arabera, garrantzitsua da temperatura iraunkorren edukitzea ere, ahal bada nahiko altuan; aire korronteak ekidin egin behar dira.

### Hilabetetik aurrera

Behin hilabetea beteta, katumek alde guztietan zehar ibiltzen hasiko dira, eta istripuak saihesteko, neurriak hartu beharko ditugu etxean. Ume txikiak bailira, kableak ezkutatu, zuloak estali eta elementu arriskutsuak hormetatik kenduko ditugu. Jaki solidoak jaten irakatsiko diegu hortik aurrera ere.





# bildu elorrio

*esan eta egin*



*bozkatu bildu*

**ELORRIO AURRERA!!**



# AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Maiatzaren 21ean, Berrizen

## PELLO RAMIREZ

Sormenerako zein interpretaziorako bere dohainak zuzenean erakutsiko ditu Pello Ramirezek, bihar, maiatzaren 21ean, Berrizko Kultur Etxean eskainiko duen kontzertuan. Bioloncelloa eta akordeoia joko ditu Ramirezek, eta Xabier Zeberioaren arrabita eta nykelharpa eta Fredi Pelaezen pianoa eta teklatuak izango ditu Berrizko kontzertuan lagun. Azkeneko urteotan landutako kanten bilduma eskainiko dute Berrizko kultur etxean.

## ANTZERKIA

### DURANGO

- » **Maiatzaren 20an**, Kurutzia gura ikastolako antzerki tailerraren **Txakur Txikirik Ez** antzezlan, 22:00etan San Agustinen.
- » **Maiatzaren 22an**, **Txakur Txikirik Ez**, 20:00etan San Agustinen.

### ZORNOTZA

- » **Maiatzaren 20an**, **Zugan ni** gazteen antzerki jaialdia, 21:00etan Zornotza Aretoa.

## BERBALDIA

### DURANGO

- » **Maiatzaren 26an**, **Hominizazio-prozesua. Gizakiaren jatorriaren historia** zikloaren barruan, Joxean Mujikaren **Homo sapiens sapiens-a: bere ingurunea, ekonomia eta adierazpen kulturalak** hitzaldia, 19:00etan Kuruzesantu Museoa.

### ELORRIO

- » **Maiatzaren 26an**, Kainaberak antolaturiko zikloaren barruan, **Zer gertatzen da herrialde arabiarretan?** berbaldia, Victor Pozas EHUko irakasle eta

HEGOAko kideagaz, 19:30ean Iturri kultur etxean.

### IURRETA

- » **Maiatzaren 23an**, Anderebide elkarteak antolatuta, **Las proteínas vegetales y animales** berbaldia, 18:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

## BERTSOAK

### DURANGO

- » **Maiatzaren 26an**, **DF Bertsozale eskola**. Bertso saioa Unai Iturriaga, Gorka Lazkano, Iratxe Ibarra eta Eneko Abasolo "Abarkas" bertsoariekin, 20:00etan Plateruenean.

### IURRETA

- » **Maiatzaren 21ean**, **Bizkaiko bertso eskolen eguna**. 11:30ean bertso eskolen **topaketa** herriko plazan. 12:00etan **jolasak**. 14:00etan **herri-bazkaria**. 16:00etan eskualdeen **erakustaldiak**. 18:00etan bertso saioa: **Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jone Uria eta Arkaitz Estiballes** (Gai-jartzailea: Zuriñe Iñarritu). 19:00etan **bertso-kalejira** Errerre txarangagaz.

## BESTEAK

### IURRETA

- » **Astelehenero**, arratsaldeko 20:00etan **San Migel jaiak** antolatzeke IMI-ko lokaletan burutzen dituzten batzarretan parte hartzeke gonbita iurretarguztiei.

### DURANGO

